



- 00:06 Muskiz
- 00:32 Aginaga
- 00:52 Aizkorbe
- 00:06 Muskiz
- 01:01 Irurtzun
- 01:23 Etxarren
- 01:28 Ekai
- 01:33 Zuhatzu
- 01:37 Satrustegi
- 01:43 Hiriberri Arakil
- 01:59 Ihabar
- 02:10 Irañeta
- 02:30 Uharte Arakil
- 02:49 Arruazu
- 03:04 Lakuntza
- 03:13 Arbizu
- 03:22 Lizarragabengoa
- 03:50 Etxarri Aranatz
- 04:06 Bakaiku
- 04:15 Iturmendi
- 04:22 Urdiain
- 04:45 Altsasu
- 05:17 Olazti
- 05:37 Ziordia
- 05:56 Guaixe

kliika



Hirugarrenaren bila

Zabaletak eta Iribarriak Binakako finala jokatuko dute etzi
Elezkanoren eta Rezustaren kontra / 17



Joselen emakumea

Irekitze eguna apirilaren 5ean, 18:30etan
Altzania, 1 | Altsasu
Bertan espero zaitugu



Lizarragako Azi iturri elkartean Korrika afaria egin zuten larunbatean. UTZITAKOIA

Klika Korrika, klika euskarari

Asteartean, eguneko lehen sei orduak Korrikak Sakanan emanen ditu. Euskararen alde urratsak egitera deitu dute AEKtik. Maratoi euskaltzaleak helduen euskalduntze eta alfabetatze lanean segi dezan AEKrendako diru iturria da

Alfredo Alvaro Igoa SAKANA

Izarbeibar eta Mañeruiabarreko 16 herrietako 16 pertsonak eman zioten hasiera 21. Korrikari atzo arratsaldean. Euskararen Legearen arabera eremu mistoan kokatutako inguru horretan euskararen alde egindako lanaren aitortza izan zen Korrika Garesen hasiera. Eta bide horretan lanean segitzeko gonbidapena. Eta gonbidapen horixe bera zabalduko du lekukoak Gasteizera iritsi bitartean eginen dituen 2.560 km-etan. Lekuko aldaketa bakoitzean Klika, hautua egiteko eskatuz.

Lekuko eramaile adina *Klika* mota daude. Batzuek *Klika* izanen da euskara ikastea, era-

biltzea eta inplikatzeko. Beste batzuek *Klika* da herritar guztien hizkuntza eskubideak bermatzeko neurriak hartzea, konpromisoak hartzeko garaia izanen da. *Klika* eginez bakarren batzuk kulturari, gure hizkuntzari, euskal inguruneari begiratuko diote, euskara aukeratzeko. Euskara-klik ugari horien bidez nork bere euskara-gosea aseko du, han eta hemen hizkuntzaren argiak piztuz, euskal komunitatea osatuz eta euskaraz bizitzeko nahia gauzatuz. Hori guztia biltzen da aurtengo Korrikaren leloaren atzean. *Klika*, beraz.

Doakotasuna

Korrika euskararen aldeko festa giroko aldarrikapena da. Baina AEKrendako ezinbesteko diru iturria ere bada. Pertsona helduak euskalduntzen eta alfabetatzen egiten duen lanean aurrera segitzeko ekonomia-bultzada handia da Korrika. AEKren asmoa baita Euskal Herriko edozein txokotan egonda ere, ikasle guztiek bitarteko berberak izatea. Langintza zaila, hiru adminis-

**KORRIKA LEKUKOAK
SAKANDARREN
ESKUTAN
IBILBIDEAREN
% 2,73 EGINEN DU**

trazio eremutan arituz. AEKko arduradunek nahiko lukete herritarrek bertako hizkuntza ikasteagatik ordaindu beharrik ez izatea. Hau da, helduek euskara ikastea dohainik izatea. Bide horretan pausoak emateko eskaera egin dute AEKko arduradunek. Gure ibarrean, esaterako, Euskara ikasten ari diren pertsona heldu sakandarrek ikasturteko klaseen %80 baino gehiagotara joaten badira Sakanako Mankomunitatearen Euskara Zerbitzuaren diru-laguntza eskatzeko aukera dute.

Lasterka

21. Korrika Sakanara ekialdetik, Aizkorbetik, sartuko da astearteko 00:52an. Ordurako euskararen aldeko lasterketa erraldoiak bere ibilbide guztiaren hamar kilometrotatik lau eginak izanen ditu, % 41,56 zehazki. Korrikako lekukoa sakandarren artean eskuz esku 70 aldiz pasako da. Arakil, Aranatz eta Burunda zeharkatu ondoren, Korrika-segizioak Ziorditik agur esanen dio Sakanari 05:45 aldera.

Euskararen aldeko lasterketak Euskal Herrian barna egiten duen ibilbide guztian toki bakarrean gelditzen da, Etxarri Aranazko Haritzalko basoan, Bakai-kurako bidean. 1981Ean, urreneko Korrika pasa eta gero herrira bueltan zihoan Javier Esevenri gazte auto batek harrapatu zuen. Hori dela eta, Korrikak urtero lore eskaintza egiten dio. Etxarri Aranazko Gazte Asanbladako kideak izanen dira aurtengo ardura hori izanen dutenak.

Omendua

Korrikak urtero norbait omentzen du. AEK-ko arduradunek lasterketa erraldoia udazkenean aurkeztu zuten, Euskara Batua-ren sorreraren 50. urteurrena ospatzen ari zen garaian. Horregatik, helburu hori lortzeko askoz lehenagotik lanean aritu zen Jose Luis Alvarez, Txillardegi omentzen du Korrika aurtengo. Bere lana goraiatu nahi da horrela.



Sakanako Korrikaren pasa zuzenean Beleixe Irratian

Sakanako irrati euskaldunak Korrika 21n zuzenean kontaktatzeko duen du astearte goizaldean. Euskararen aldeko lasterketa Sakanan sartu baino ordu erdi lehenago hasiko du emanaldia, 00:15ean. Sakandarrek 71 lekuko aldaketa egiten dituzte eta haiek kontaktatu dituzte Beleixe Irratiak. Zuzenean sei orduko kontakizuna izanen da. Saioan parte hartzeko aukera izanen da, 948 567 074 telefonora hots eginez edo 661 253 245 telefono zenbakira whatsapp mezua bidaliz.

Gautxoriak ez direnak astearte goizean, 10:00etatik aurrera, kontakizuna berriro entzuteko aukera izanen dute. Guztia FM-ren 107,3 dialdean edo www.guaixe.eus bidez entzungai izanen da.

Bestalde, Korrikaren zuzenean irudiak ikusteko aukera izanen da www.guaixe.eus web orrian. Tokiko hedabideen eta ETBren lankidetzari esker Korrikaren furgonetatik ikusten dena zuzenean ikusgai izanen da.

Gasteizeko Korrika akaberara joateko autobusa

21. Korrika Gasteizen despedituko da apirilaren 14an, igandean, 12:30ean. Korrikaren azken festa handira joateko ohitura dute sakandar askok. Eroso-eroso joan nahi dutenentako autobusa antolatu du Sakanako AEK-k. Izena eman nahi duenak Itsasi euskaltzaitik pasa daiteke izena ematera, edo 948 468 258 telefonora hots eginez dezake.



EGOKI
VENTANAS PVC LEIHOAK
www.ventanasegoki.com

KALITATEA - AURREZKIA - EROSOTASUNA

egoki@ventanasegoki.com

948 563 253 Arkinoturri Industrialdea · Olazti ERAKUSKETA: Olite kalea 16 · Iruñea

Etxe pasiboetarako egokia

5 9000

Beirak lehorrean jarrita

STV

Isolamendu nukleo indartsua

IKD

Aparteko azala koloreztatua

irradiatzen

Korrika agenda

IRURTZUN

APIRILAK 7, IGANDEA

18:00 Asier Kidam magoa, haur eta familiendako, kultur etxean.

APIRILAK 8, ASTELEHENA

12:30 Eskolako Korrika txikia.
18:00 Korrika festa: bertso eskolako ikasleen saioa; haurrak eta helduak plaza apaintzera; txistulariak; musika... plazan.
21:30 Afarria, Pikuxarren.
23:30 Larrazpi eta IAGA Korrikara elkarrekin joateko hitzordua Larrazpi gazte elkartearen.

IHABAR

APIRILAK 6, LARUNBATA

17:30 Korrika txikia.

UHARTE ARAKIL

APIRILAK 5, OSTIRALA

18:00 Kale-futbola (3x3) eta porra, Ibaiko kalean.
19:00 Arropa azoka.
19:30 Korrika Txotx, udal plazan.
19:45 Kantu-poteoa.

APIRILAK 6, LARUNBATA

11:00 Herri-jolasak, frontoi zaharrear.
12:00tan Peto-tailerra, frontoi zaharrear.
13:00 Korrika txikia.
14:30 Bazkaria, Aralar-Mendi elkartearen.

16:30 Mus txapelketa.
18:00 Txokolate-jana.
18:30 Korrika Flash-movie.

LAKUNTZA

APIRILAK 7, IGANDEA

11:30 Petoak egiteko tailerra, Txingukolore, Erraldoi eta buruhandiak eta Elai Alai dantza taldea, plazan.

APIRILAK 8, ASTELEHENA

17:00 Korrika txikia, plazan.

APIRILAK 9, ASTEARTEA

03:00 Korrika Lakuntzatik.

APIRILAK 11, OSTEGUNA

18:00 Lakuntzakide, Lakuntzeko itxen izenak yakusko? Lakuntzako Pertza elkartearen.

APIRILAK 12, OSTIRALA

19:00 Buah Txabal bakarriketa, eta pintxo-potea. Biltokin.

ARBIZU

APIRILAK 5, OSTIRALA

19:00 Kike Amonarrizen hitzaldia.
21:00 Parrilada.
22:00 Talka, bertso talde akustikoaren kontzertua.

APIRILAK 6, LARUNBATA

12:00 Korrika txikia.
12:30 Herri kirolak eta txokolate-jana.
13:00 Euskaldun berriei eta

euskara ikasleei omenaldia.

APIRILAK 9, ASTEARTEA

03:13 Korrika Arbizutik.

BAKAIKU

APIRILAK 5, OSTIRALA

18:00 Buruhandiak.
19:00 Talo-potea, musikaz girotua eta Korrika Jokoa.
Herrien izena asmatu eta peto bat lortu!

APIRILAK 7, DOMEKA

KORRIKA TXIKI EGUNA
16:00 Petoen prestaketa tailerra.
17:00 Korrika txikia Iturmendira.
18:00 Dantzaldia eta txokolate-jana, Iturmendin.

APIRILAK 9, ASTEARTEA

04:06 Korrika Bakaikutik.
Elkartearen pastak egonen dira.

ITURMENDI

APIRILAK 7, DOMEKA

KORRIKA TXIKI EGUNA
16:00 Petoen prestaketa tailerra, Bakaikuko plazan.
17:00 Korrika txikia Bakaikutik Iturmendira.
18:00 Dantzaldia eta txokolate-jana, Iturmendin.

URDIAN

APIRILAK 6, LARUNBATA

22:00 Korrika-afaria.

APIRILAK 7, DOMEKA

KORRIKA TXIKIA

18:00 Bentan. Jolasak ibilbidean.
19:00 Txokolate-jana.

ALTSASU

APIRILAK 6, LARUNBATA

18:30 Korrika erakusketa, Foru plazan.

APIRILAK 8, ASTELEHENA

12:00 Korrika txikia, Foru plazan.

OLATZAGUTIA

APIRILAK 5, OSTIRALA

22:30 Xabi Bandiniren kontzertua, Begibakar diskoaren aurkezpena.

APIRILAK 7, DOMEKA

HERRI KORRIKA
11:00 Kasinon elkartu.
12:00 Herri Korrika, akabera San Migel plazan. Segituan, txistorra-jana.
17:00 Txan magoa, kultur etxean.

APIRILAK 8, ASTELEHENA

12:00 Korrika txikia, eskolatik.

APIRILAK 9, ASTEARTEA

05:17 Korrika Olatzagutian.

ZIORDIA

APIRILAK 7, DOMEKA

17:30 Korrika txikirako hitzordua.
18:00 Korrika txikia.
Ondoren Txokolate-jana, elkartearen.

APIRILAK 9, ASTEARTEA

05:37 Korrika Ziordian.



Jasone Mendizabal eta Mertxe Mujika.

Badakizu non duzun Euskaraldiko txapa?

Korrikak irauten duen bitartean ahobizi eta belarriprest izateko deia egin dute

Alfredo Alvaro Igoa SAKANA

Korrikak hamar egunez sortzen duen zirrara eta "testuinguru paregabea" Euskaraldiko esperientzia errepikatze deia egin dute AEK-k eta Euskaltzaleen Topaguneari. Hau da, txapei hautsa kendu eta ahobizi eta belarriprest gisa aritzea.

Mertxe Mujika AEKren koordinatzaile nagusiak adierazi duenez, "klika eta inertziak apurtzea eskutik doazen ekintzak dira". Euskaraldian parte hartu zutenek "euren hizkuntza-praktikak aztertu" eta ohiturak aldatzeko erabakia hartu zutela gogorarazi du. Mujikak nabarmendu zuen 20. Korrikak irudi esanguratsua utzi zituela, erakundeetako eta euskalgintzako ordezkariak elkarrekin korrika.

Geroztik, rol eta jarrera berriak sortu dira Euskal Herrian, eta horiek zabaltzeko deia egin dute bai Mujikak bai Topaguneko zuzendari Jasone Mendizabalek. Azken horrek ahobizi eta belarriprest izan ziren guztiei "euskarazko hizkuntza-praktikak zabaltzen jarraitzeko, aldatutako ohitura horiei eutsi eta euskarazko harremanak zaintzeko". Eta nabarmendu zuen eguneroan egin beharreko ariketa horrek testuinguru ezin hobea izanen duela Korrikan.



IRITZIA

NEREA BALDA

Lekukoa izateaz harro

Hurbil daukagu hitzordua. Garunean iltzatua dut hit bilakatu den zure doinua, eta oinak saltoka jartzen zaizkit, ezinbestean, txistuka hasten naizenero. Kaleetako afixek zure bira iragartzen didate nonahi; ez, ez nizuke inola ere huts egingo.

Oholtza gainera irteten ikusiko zaitut, eta, orduan, zaleen txalo zaparradari batuko natzaio, eztarria urratuko zait zure izena garraxika; algar

bihurtuko naiz neu ere festa giro eromenezkoan.

Gogoan izango zaitut, gau eta egun, eta bekaitzez so egingo diet laztantzen zaituzten eskuei, jasotzen zaituzten besoei. Jarraituko zaitut Twitterren, Facebooken eta Instagramen. Ikusiko zaitut kantari, bertsolari, aktore eta politikoei helduta. Hunkituko nau zure ibilerak ume eta ezinduekin zoazela. Poztuko nau batzuek nahi ez zaituzten lekuetan zein maitale handiak dituzun sumatzeak.

Irrikaz itxarongo zaitut. Zure izena daraman elastikoa jantzi eta lehertzer aterako naiz. Errepide bazterrean itxarongo

zaitut, gauez, ilun eta hotz izanagatik. Zirrara luze batek hartuko nau bozina soinuak isiltasuna urratzen duenean, zure kalejiraren hotsa eta argia gerturatzen ikusten ditudanean. Salto eta jauzika berotuko ditut giharrak, eta azkenik, musika eta oiñuek bildu orduko nire eskuak gora jasoko zaitu, gorago! Bidez bide eraman zaituztenen izerdiarekin nahastuko da nirea, eta unearen emozioaz, ez dut jakingo nor daraman nor, harik eta hurrengo kilometroan beste esku urduri batean askatuko zaitudan arte. Indarra galdurik, urruntzen ikusiko zaitut orduan, eta jarraitzen saiatuko naizen arren, agurtu beharko zaitut, zoriontsu eta harro, hala ere.

Zoriontsu eta harro Gasteizko helmugara iristen ikusiko zaitut, oholtzara igotzen. Zoriontsu haraino iristen lagunduko zaituzten milaka hanka paretako bat izateagatik. Eta batez ere, harro. Harro euren gurasoengandik lekukoa ezin jaso eta niri berreskuratzeko aukera eman zidaten gurasoez. Harro baliabide urriekin euskararen lekukoa pasa zidaten irakasleez. Harro, hortaz, nire euskara batuaz. Harro sasi guztien gainetik Lingua navarrorumaren lekukoari eusten dioten nafar euskalduna izateaz. Lekukoa hartu eta pasatzeaz, harro.



ASTEKOA
XABIER REPARAZ
EXTRAMIANA

Ahots

Ahots bat bada, denboraren oihartzun ilunetatik bueltan. Ahots bat, kimu berri kolorez estali nahian ideia atzerakoienak. Sistemarekin haserre direnak erakarri nahi dituen, arrazoi bila dabilenari aitzakiak ematen dizkiona. Inposaketaren mailuaz askeak zapaldu nahi dituen. Zalantzan dagoenari bere konponbide sinpleak eskaintzen dizkiona. Armen salmenta askeaz, mendeku bila dabilzane tresnak eman nahi dizkiona. Nostalgi-koengan kuarteletako amets zaharrak berpizten dituen. Gatazkak indarrez konpontzea posible dela uste duena. Injustiziaz ordainarazi nahi dituen. Begia begi trukean sinisten duena.

GUTUNA

Esker ona

IZASKUN ETXEBERRIA ZUFIAURRE

Bi urte eta erdi betetzear dira sekula suertatu behar ez ziren gertakariak gauzatu eta ondorengo antolaketa/muntaia hasi zenetik. Eta bide luze bezain mingarri honetatik, giza-eskubide eta askatasunaren aldeko borroka zibiko bezain kementsu honetatik:

Eskerrak eman nahi dizkizuet, gezurren gainetik, aldarrikapeneta sinetsi eta auziperatuekiko elkertasuna agertzen ari zaren guztioi, izugarri handia izaten ari baita jasotzen ari den berotasuna.

Eskerrak eman nahi dizkizuet altsasuar guztioi, egurraren gai-

Kimu honen hazia han egon da luzaro. Lurpean itxoin du denbora luzez. Behar dituen ur eta argia jaso duen arte zain egon da. Berrogei urtez zain, diktaduren zauriak ahaztu arte, ubeldurak eta zentsura ahaztu arte. Sare sozialaren indarrak kontzientziak bahitu dituen arte. Betiko akatsetan erortzea zilegi dela erabaki duten arte. Entzun nahi dutena entzunarazi dieten arte. Ezkututik begira, otso beltzak bere ahoan sartzea eskaini die belardiko haizeaz kezu diren ardi doakabeei. Otso beltzak badiren ere aherentzi duten arte.

Kolore desberdinak udaberri honetan, kolore desberdinak talde guztietan. Bozkak lortu nahian nork bere partida irabazi nahian. Jokoz kanpo jokatzeko ari direnak ez al dira iritsiko golik sartzerara. Jokoz kanpo geldituko al dira jokoa suntsitu nahi dutenak.

netik, erakusten ari zaren batasun eta duintasunarengatik, herria izateagatik.

Eskerrak eman nahi dizkizuet bi urte eta erdi hauetan jotake lanean ari zaren guztioi, nekearen gainetik, zuen enpatia eta lan onarengatik.

Eskerrak eman nahi dizkizuet zuei, Gurasoei, sufrimenduaren gainetik, azalarazten ari zaren tenple eta adoreaengatik.

Eta, bukatzeko, eskerrak eman nahi dizkizuet Zaballako barrote artean zaudetenoi, irregularitasun guztioi eta injustiziaren gainetik, helarazten duzen sosegu-mezuarengatik.

Zintzoki, eskerrik asko. Altsasukoak Aske!

HARA ZER DIEN

Hauteskunde-kanpaina

JUBILATUEN SASOIA ELKARTEA

Berriz ere hauteskunde kanpaina aspergarri batean sartu gara. Oraindik ez da iritsi hautua eskatzeko eguna eta hitzez eta ekintzez txoko guztiak kakazten ari dira. Buru belarri lehiatzen hasiak dira, ea nork esaten duen astakeririk handiena eta, oraingoan, uste dut marka guztiak hausten ari direla; lotsa galdu dute erabat.

Zati batean, errua ez da izango gurea? Kezkatzekoa da zabaltzen dituzten mezuak nola hedatzen diren sareetan, kezkagarriak

diren mezuak barregarri bilakatzeko eta ez dut uste horrek mesede egiten digunik, behar bada pozik ikusten dira beraiek, bada erdaraz esaera zahar bat: "Ande yo caliente y riase la gente".

Jubilatuek eta pentsionistek arduraz jokatu nahi dugu. Hauteskundeak iragarri aurretik hitzartua genuen bilera talde ezberdinetako ordezkariekin, Madrilen, erkidekoekin egon ondoren eta, gehienek Pentsio Sistema Publikoa, K.P.I. ren igoera automatikoa, Jasangarritasunaren faktorea indargabetzea, Genero arrakala... defendatzeko prest agertu arren, ez da aski. Borrokari eusten ez badiogu beti gertatu dena gertatuko da, hitzak haizeak eramaten dituela.

Gu gure kanpaina egitera behar-tuak gaude, ez gara egongo esan-

go digutenaren zain, badakigu zer behar dugun eta kaleratuko ditugu gure beharrak, entzun diezagutela eta, jakin dezatela, gure kanpaina ez dela bukatuko Apirilaren 28an edo Maiatzaren 26an. Eta konturatu gaitzen gure botoekin agintea lortzen dutenean, gehienetan, gure interesen kontrako erabakiak hartu izan dituztela: murrizketak, 0,25, jubilatze-ko adina atzeratu, azkeneko 25 urteetako kotizazioaren arabera ezarri pentsioa... Beraz, kontzentrazioekin jarraituko dugu eta Apirilaren 13an eta Maiatzaren 11an manifestazio jendetsuak egiteko lanean hasi gara.

ETA ADI, DENAK EZ DIRA BERDINAK, GURE ETORKIZUNA GURE BOTOAK ERABAKIKO DU.

GUTUNA

Osasun eskubidea guztiontzat ote?

MIKEL MUNDIÑANO LARRAZA

NAFARROAKO SARE HERRITARRAREN IZENEAN

Apirilaren 7an Osasun Eskubidearen Nazioarteko Eguna dela aintzat hartuz, geure buruari galdera hori egin behar genioke. Erantzuna teoriarik baiezkoa litzateke; BAI, denok dugu osasun eskubidea. Araza, ordea, eskubide unibertsal hau edozein herrialdetako norbanakoei berdin aplikatzean ez zaienean dator.

Hori horrela izanik, SARE Herriarrekoei kide gisa, larriki gaxorik dauden euskal presoek bizi duten egoerari erreparatu nahi diogu. Urrunketa politikaz gain, presoek duten gaixotasuna euren etxekoan ondoan artatzeko eskubidea ukatzen zaie eta.

Jon Gurutz, Josetxo, Iñaki, Gorka, Txus, Ibon... izen luzeko

zerrenda bat osa genezake. Honenbestez, Entzutegiek ezarritako zigorrak gain, presoek pairatzen duten oinarritzko eskubideen urraketa azpimarratu beharra dugu.

Horretaz gain, zigor kodeak eta Espainiako espetxe legediak egoera berezietarako baldintza bereziak kontuan hartzen dituela gogorarazi nahi dugu. Esaterako, larritasun handiko edo sendaezinak dituzten gaixoena, baita 21 euskal presoena ere, hortaz. Baldintza berezi horiei helduz, gaixotasunaren beharrezko informarekin eta presoaren sailkapena kontuan izan gabe, hirugarren graduaren behar-lukete, arazo humanitarioak eta pertsonaren duintasuna tarte-ko. Eta noski, baita justiziagatik ere, horrela jasotzen baitu espetxe araudiko 100.4 artikulua.

Egia da, zigorturik egon eta gaixotasun larri bat duen preso

baten kaleratzeak, ez duela sendaezina den gaitz baten sendatzea ekartzen, baina horren hobetze eta garapenaren moteltze nabarmena dakar, zalantzarik gabe. Izan ere, profesionalek artatzea eta presoaren giro zein inguru-nearen aldaketak modu positiboan eragingo du gaixotasunaren garapenean.

Beste behin, SAREk honako hau azpimarratu nahi du: legediaren aplikazioa ez da inolaz ere estatuaren amore emate gisa ulertu behar. Hau da, larriki gaxorik dauden presoek kaleratzea ez da amore ematea, euren eta Europaren legedia betetzea baino ez da.

DUINTASUNAGATIK, GIZATASUNAGATIK ETA JUSTIZIAGATIK LARRIKI GAXORIK DAUDEN PRESOEK KARTZELATIK KANPO EGON BEHAR DUTE.

Bizirik eta etxean nahi ditugu!

guaixe
SAKANAKO ASTEKARIA

www.guaixe.eus

Koordinatzailea:

Goizeder Anton Iturralde
fundazioa@guaixe.eus

Diseinu zerbitzua:

GK, Olatz Aldasoro Martinez de Ilardua
Miren Arregi Olivenza
gk@gkomunikazioa.eus

Administrazioa:

Gema Lakuntza Lopez
admin@guaixe.eus

Zuzentzailea:

Miren Alonso Razkin

Lege gordailua:

NA-633/1995

Tirada: 3.200

LAGUNTZAILEAK

Mank
s a k a n a

BAZKIDEAK



Erredakzio burua:

Alfredo Alvaro Igoa
guaixe@guaixe.eus

Erredakzioa:

Maidier Betelu Ganboa
kirolak@guaixe.eus
eta Erkuden Ruiz Barroso
kultura@guaixe.eus

Maketatzailea:

Irene Trecet Obeso
maketazioa@guaixe.eus

Publizitatea:

Maria Saez de Albeniz Bregaña
publizitatea@guaixe.eus
eta Eneida Carreño Mundiñano
publi@guaixe.eus

ARGITARATZAILEA:

Guaixe Fundazioa.
Foru plaza 23-1.
31800 Altsasu
948 564 275
948 562 107 (Faxa)
618 882 675



Nafarroako Gobernua
Gobierno de Navarra

Ibarreko merkataritza osasuntsuaren alde

Denden erreleboen pasan eta dendak jartzeko prozesuetan laguntza ematen elkarlanean ariko dira Sakanako Garapen Agentzia eta Cederna-Garalur. Bien elkarlana indartzeko estrategiaren lehen pausoak dira eta aurrerantzean gehiago etorriko dira

SAKANA

Komertzioaren osasuna gure herrien bizia dela sinetsita, Sakanako Garapen Agentziak (SGA) eta Cederna-Garalurrek elkarlanean *Heldu komertzioari!* proiektua jarri dute martxan. Bi errealitatek bat egiten dute egitasmo horretan. Alde batetik, SGAK egindako “ibarreko merkataritzaren azterketan agerian gelditu zen Sakanako komertzio batzuek errelebo edo jarraikortasunerako arazoak izanen dituztela, batez ere, hemendik urte gutxira”. SGAKo elikadura teknikari Nerea Vianaren azalpena da. Bestetik, Cederna-Garalurreko Susana Mendinuetak gogorazi du eskarmentu handia dutela bideragarritasun planak egiten, aholkularitza eta prestakuntza saioetan.

Vianak azaldu duenez, “*Heldu komertzioari*” leloa herritarrei dei bat da: kontsumitzaile gisa eta ekintzaile moduan, komertzioan lanbide aukera bat izan dezakeelako”. Mendinuetak bo-bildu du: “Sakanako herriak bizirik mantentzeko, komertzioak bizirik behar baitu”.

Hori lortzeko bi eragileek euren ezagutzak eta baliabideak partekatuko dituzte. Aurreratu digutenez, “proiektua hainbat fasez osaturiko ibilbide baten moduan



Ikerketaren arabera hurrengo bost urteetan Sakanako dendek % 20 itxi daitezke.

planteatuko da”. Lehenik, SGAK komertzioen prospekzioa eta lehen azterketa egingen du, ondorengo faseetarako baldintzetan dauden komertzioak identifikatuz. Ondoren, Garalurrek haien bideragarritasun azterketa, ekintzaileen identifikazioa, bitartekaritza eta ekintzailetzaren sustapena hartuko ditu bere gain.

Baliabideak

Hiru baliabide multzo daude. Batetik, diru-laguntzak: prestakuntza ekintzetarako; merkataritza enpresa txikien lehiakor-

tasuna hobetzeko eta ekintzaile-tza sustatzeko; denda txikien elkartearen kudeaketarako eta sustapenerako; dendak biziberritzeko eta diagnosiak, planak eta enpresa analisiak egiteko. Bestetik, negozio eredia, landa merkataritza programa dago, landa-eremuko komertzioa berri eta modernizatzeko negozioen errentagarritasuna handitu eta bizimodua hobetzea helburu duena. Azkenik, ekintzaileei edo negozio berri bat martxan jarri nahi dutenendako Garalurren zerbitzua dago.



Behatokiaren azaroko bilera. Asistentzia baieztatzea eskatu dute SGAtik. ARTXIBOA

Plan estrategikoaren berrikustea despeditzeko hitzordua

Sakanako Sozio-ekonomia Behatokia Mank-en egoitzan elkartuko da asteazkenean, 17:00etatik 18:30era

SAKANA

Sakanako Plan Estrategikoak (SPE) 2014-2020 aldia hartzen du. Hala ere, Nafarroako Gobernua-rekin lankidetzatza 2016an hasi zen. Ordutik bi urteko bidea egin eta gelditzen diren bi urteetarako berrikuspene egitea egoki jo zuten Sakanako Garapen Agentzian (SGA). Orain arte SPEren baitan egindako lana eta eragin-kortasunean nola hobetu aztertu nahi izan dute hura berrikusiz.

Hasteko Sakanako Sozio-ekonomia Behatokiaren (SSB) bilera egin zen azaroren 28an. Udaletako, mankomunitateetako, alderdi politiko, sindikatueta, enpresetako, hezkuntza eragileen, Nafar Lansareko eta sozio-ekonomia elkarten ordezkariak bildu ziren. 2014-2018 zikloari buruzko SPEren gauzatze-memoria jaso zuten. Txosten hori eguneratzeko eta aberasteko

prozesua abiatu zen orduan. Irurtzumen, Etxarrineta Altsasun sakandarrendako jardunaldi irekiak egin ziren abendu erdialdean. SGAKo kideak, gainera, makina bat eragilerekin elkarriketak izan dituzte. Baita parlamentuan ordezkariak dauden alderdien ordezkariekin ere.

SGAK banatutako oinarritzko txostena azarotik jasotako ekarpen eta hausnarketekin aberastu dute, azken txosten bat onduz. Berrikuspen prozesuan sortutako dokumentu hori aurkeztuko dute asteazkeneko bileran. Hari oniritzia ematen bazaio, SGAK txostena Nafarroako Gobernua-ri aurkeztuko dio. Bestetik, agentziako kideek SSBren bilera baliatuko dute, batetik, bidean identifikatu dituzten erronka partekatuen berri emateko. Eta, bestetik, erronka horiei erantzuten hasteko 2019rako aurreikusitako ekintzak aurkezteko.

107.3 FM
beleixe

Jarraitu Korrika Sakanan barna

zuzenean

Asteartean 00:00tik 06:00etara

Klika

21. korrika *sek*
2019ko apirilaren 4tik 14ra
GARESTIK GASTEIZA

Basaluzeko dorrea berritzera

Hormak, sendotu, barruko egitura horizontala, zurajea eta teilatua berrituko dituzte. Nafarroako Gobernuak agindutako lanak bi hilabete barru edo hasiko dira. Dorreari ez diote erabilera jakinik aurreikusi oraingoz

Alfredo Alvaro Igoa ALTSASU

Kultura Zuzendaritza Nagusiak-Vianako Printzea Erakundeak Altsasuko Basaluzeko dorrea zaharberritzeko lanen deialdia egin du. 282.724,8 euroko aurrekontua du lanak (BEZ barne). Interesatuak eskaintzak apirilaren 17ko gauerdira arte aurkez ditzakete. Kalitate-prezio erlazio onena duen eskaintzari emanen zaio lana. Barga magalean egin beharrekoak sei hilabetetan despeditu beharko dira.

Dorrearen arkitektura zaharberritzea egingen dute, berezko ezaugarriak mantenduz. Horretarako, dorrea aldamiok inguratu eta langileek hormak sendotzeko lanak egingen dituzte, kanpoan eta barruan. Eraikin barruko lurra eta landaretza arkeologo baten zaintzapean aterako da kalera. Dorrearen beheko solairuan porlan plantxa zabalduko dute eta haren gainean adreilu zaharra jarriko da, galburu marrazkia eginez.

Ondoren lehen solairuari etsiko dion egurrezko forjatua jarriko dute. Haritzeko habeak izanen dira, 24x16 cm-koak, paratan bermatuko direnak. 55 cm-ko habe bat jarriko dute. Bai lehen bai bigarren solairuetan haritzeko oholez osatutako zoru jarriko da. Bi solairuetan eskuko eskailerendako tokia utziko da. Horiek metalezkoak izanen dira. Teilatua lau izanen da eta haren gainean 4 cm-ko lodiera duten kareharri lauzak jarriko dira.

Sarbideko atea, lehen solairuko hiru leihoak eta bigarren solairuko lauak, eta azken zazpi horien kontraleihoak haritzekoak izanen dira. Beheko solairuko hamabi gezileihoak ez dira itxiko, aireztatze egokia bermatzeko. Hala ere, haietan altzai-

ruzko pieza bana eta altzairuzko sare bihurritua jarriko dira, hegaztiak dorrera sar ez daitezten. Tximistorratza ere jarriko dute. Solairu bakoitzaren azalera erabilgarria 25 metro karratukoa da, teilatuan, berriz, 36 m²-koa. Guztira 111 m²-ko azalera erabilgarria du. Solairu bakoitzeko eraikitako azalera 42,15 m²-koa da, eta guztira 168,6 m²-koa.

Lanen arduradunek jakinarazi dutenez, dorreari ez diote erabilera jakinik emanen, ezta teilatuan zegoen seinale komunikazio sistema jarriko ere, aldameneko dorreak desagertu baitira. Mantentzen den dorre bakarra denez, eta kultur balioa aitortua duenez, turisten bisitak har ditzakeela edo goiko solairuetan erakusketak jar daitezkeela aipatzen da lanen memorian. Hala ere, hori guztia zehazteko dago, eta beti ere dorreak eskaintzen dituen aukerak kontuan hartuta.

Telegrafo optikoa

Informazioa distantzia luzera bidaltzeko lehen saiakeretako bat izan zen telegrafo optikoa. Aginduak ahalik eta azkarren bidali eta jasotzeko Estatuko hedabide gisa aurrenekoz Franzian garatu zen 1790ean. Dorre batetik bestera 12 km-tara zeuden dorreen bidez zabaltzen zituzten mezuak, propio sortutako alfabetoa erabiliz.

Espanian linea labur batzuk eraiki ziren XIX. mendearen hasieran. 1844. urtean telegrafia

ERDI AROKO DORREEN ARTEKO KOMUNIKAZIO FORMULA OROITARAZTEN DU


optikoko sare bat egiteko lehia-keta publikoa egin zen eta Estatu Nagusiko koronel Jose Maria Mathe Araguren proiektua aukeratu zuten. Sarea izan behar zuenaren hiru linea eraiki ziren bakarrik: Gaztelakoa (Madrildik Irunera, Valladolidetik pasaz), Kataluniakoa eta Andaluziakoa.

Madril eta Irun arteko linea osatuko zuten 52 dorreak 1844an hasi ziren eraikitzen eta 1846ko lastailaren 2an jarri zuten martxan. Nafarroan, Burundan, hiru dorre jaso ziren: bat Ziordian eta bi Altsasun (Basaluze eta Engara edo Egubera). Bizitza laburra izan zuten, berehala telegrafo elektrikoa instalatu baitzen. Madril-Irun linea 1855. urtetik aurrera ez zen gehiago erabili. Dorreak abandonatu ziren, eta horietako asko desagertu dira edo oso hondatuta daude. Zenbait dorre zaharberritu dira.

Dorreek diseinu espezifikoak dute, bi ezaugarri hauekin: telegrafo optikoaren seinaleen mekanismoa dorrearen gailurrean dago, eta defendatzeko gaitasuna dute borrokan ere komunikazioa ez eteteko. Horretaz aparte, ondoko dorreekin ikus-kontaktua ahalbidetzen zuen eremu batean kokatu behar ziren. Kokaleku eta itxuragatik "gatzelua" leku izena eman diote. Horixe gertatu da Basaluzeko eta Ziordiko dorreekin (azken horri "telegrafoa" izenez ere ezagutzen da).

Basaluzeko dorrea Altsasuko Udalarena da. Bere altitudea 675 metrokoa da (160 metrokoa ibarraren hondotik), eta Urbasa menditik (1185 m) jaisten den adar batean dago. Aurretik Ziordiko zuen, Iturbedeinkatutik mendebaldera. Linearen hurrengo dorrea Altsasuko Eguberkakoa da. Biak aurri egoeran daude.

+www.guaixe.eus



Basaluzeko dorrea eta hura berritzeko planoak. ARTXIBOA / NAFARROAKO GOBERNUA

Klima eta Energiaren aldeko itunean gaude

Sakanako udal guztiek sinatu dute Klima eta Energiaren aldeko ituna. Toki entitateak berotegi efektuko gasen isurketak murrizteko helburuaren erantzukide bihurtzea helburua du itunak. Plangintzak egin eta neurriak hartuko dira isurketak murrizteko

SAKANA

Klima eta Energiaren aldeko Nafarroako Alkateen Ituna Nafarroako Gobernuak sustatu du. Foru administrazioak toki erakundeei harekin bat egitera gonbidatu zituen otsailean. Ondoren, itunari buruzko informazio jardunaldia antolatu zuen. Aipatu itunak Europako ekimen batean du sorburua eta haren helburua da: toki entitateak berotegi efektuko gasen (BEG) isurketak murrizteko helburuaren erantzukide bihurtzea. Hala, ituna sinatzen duten udal guztiek klima-aldaketa arindu eta horretara egokitzeko nahiz pobrezia energetikoari aurre egiteko ikuspegi bateratua izanen dute.



Sakanako ikuspegia. ARTXIBOA

Itunaren helburu zehatzen artean dago 2030 urterako udalerriko berotegi efektuko gasen isurketak gutxienez % 40 murriztea. Horretarako, energia-eraginkortasuna hobetuz eta energia-iturri berriztagarrien erabilera gehitu nahi da. Horrekin batera, klima-aldaketaren ondorioetara egokitzeko udalerrien erresiliencia areagotuko da. Horretarako, udalek bere gain hartuko dute erreferentziatzeko BEG isuriaren inbentarioa lantzeko konpromisoa, klima-aldaketari loturiko arrisku eta kalteberatasunen

ebaluazioarekin batera. Jarraian, Klima eta Energia Iraunkorraren aldeko Ekintza Plana aurkeztu beharko du. Hori guztia egiteko udalek bi urte dute. Azkenik, gutxienez bi urtez behin, udalek egoerari buruzko txostena landuko dute, ebaluazio, jarraipen eta kontrolari buruzko irizpideak barne hartuz. Hori guztia Nafarroako Gobernuaren laguntzaz egingen dute.

Iraunkortasunaren aldeko Nafarroako Toki Entitateen NELS Sareak, Alkateen Itunaren sustatzailea den heinean, sinatzaileei

sostengua eta laguntza emanen die, nabarmenak diren ezaguerak, jardunbide egokiak, tresnak eta baliabideak partekatuko ditu, eta lankidetzan jardungo du Itunaren beste sustatzaileekin eta lurralde koordinatzaileekin batera, ekintza bultzatzeko eta ikuspegi koordinatua sustatzeko. Laguntza emanen duen beste erakundea Lursarea Lurraldearen eta Iraunkortasunaren Nafarroako Agentzia da.

Aipatu ituna 50 udalek sinatu dute, eta haietatik % 30 Sakana-koak dira.



Ergoienako udaletxea. Eskuineko aldean dago salgai dagoen lursaila. ARTXIBOA

Kontzejuak lur saila enkante bidez "merke" salduko du

Merke jarri dute salgai, Lizarragara gazteak erakarri asmoz. Ergoienako udaletxearen ondoan dago

LIZARRAGA

Lizarragako Kontzejuak jakinarazi du enkante publiko bidez bere jabetzakoa den lur sail bat salduko duela. Ergoienako udaletxearen ondoan dagoen lursaila da salduko duena, 279 metro karratuko azalera duena. Lizarragako Kontzejuaren lur sail hori erosten interesa dutenek euren proposamenak Ergoienako udaletxean apirilaren 17ko 14:00ak baino lehen egin behar dute. Interesatuak egin beharreko gutxienezko eskaintza 21.780 eurokoa (BEZ barne) da.

Kontzejuko buru Xabier Senar Veigak azaldu digunez, "lur saila 40.000 eurotan baloratuta dago. Ahalik eta merkeen salduko dugu. Nafarroako Gobernuak ez digu gehiago jaisten uzten". Prezioa jaistearren arrazoia eman digu Senarrek: "merkeago saldu nahi dugu gazteak herrira bizitzera erakartzeko. Jende gazteari Li-

zarragan bizitzeko aukera eman nahi diogu horrela. Erosten duenak bete beharretako baldintza da Lizarragan bizitzea eta bertan erroldatzea. Hori betetzen ez bada, atzera egiteko aukera izanen da".

Ergoienako hiru herriek azken hamar urtetan biztanleriaren % 9,86 galdu dute eta populazioa zahartzen ari da. Hortik Lizarragako kontzejuko kideen gazteak erakartzeko kezka. Izan ere, Gaindegiak, Euskal Herriko ekonomia eta gizarte garapenerako behategiak errealitate demografikoa aztertuta 2013an egindako azterketan Ergoienak eta Bakaikuk "etorkizun zehatz gabea" zutela gaztigatu zuen. Hala ere, esperantzarako izpiren bat badago azken urte erdian bi etxe zahar saldu direlako eta bi etxe konpondu direlako eta beste bi konpontzeko asmoa dagoelako.

okindegia... gozetegia... kafetegia...

DENA ESKURAGARRI

ZUMALAKARREGI PLAZA, 3 / ALTSASU

ZUREKIN 1964- GEROZTIK

Amaya

OKINDEGIA

☁️ | 🍩

<p>OLAZTI</p> <p>948 468 755</p> <p>• Orreaga Kalea, 1</p>	<p>ETXARRI-ARANATZ</p> <p>948 461 660</p> <p>• Kale Nagusia, 4</p>	<p>ARAIA</p> <p>945 314 572</p> <p>• Andoni Urrestarazu, 3</p>	<p>VITORIA-GASTEIZ</p> <p>945 148 368</p> <p>• Arriagako Atea, 12</p>
<p>ALTSASU</p> <p>678 323 403</p> <p>• Iruña Hiribidea, 48</p>	<p>948 468 026</p> <p>• Zumalakarregi Plaza, 3</p>	<p>670 389 017</p> <p>• San Juan Kalea, 50</p>	<p>948 562 185</p> <p>• Otadiko Kristo Deuna, 19</p>

Trenaren garapen ereduaz eztabaida eskatu dute

Larunbatean “Nafarroako erdialdean martxan dauden obrak gelditzea eta egungo tren hobetzeko azterketa objektiboa egitea” eskatu zuten. Aldi berean, “emaitzak jendaurrean jartzea eta herritarrei horri buruzko kontsulta egitea” eskatu zuten

ALTSASU

“Nafarroaren Garapena, Etor-kizuna eta Interes Orokorra manifestazio honetan bildu garen pertsonengan dago, hain zuzen ere, pertsonak, herriak eta luraren zainketa garapenaren oinarritzat hartzen ditugulako, eta, horrexegatik, tren sozialaren aldeko apustua egiten dugu”. Mezu hori zabaldu zuen Sakana Trenaren Alde, AHTrik ez! plataformak larunbatean egindako manifestazioan. Deitzaileek esan zuten, “egungo tren garatuz gaitasun goreneko tren lor daiteke Europako estandarretara egokitua eta Mediterraneo-Atlantiko ardatzean kokatua, pertsonendako eta merkantzien garraiorako baliagarria izanen dena. Korridorea egina dago, posible da trenbidearen bikoizketa eta 3. erraila jartzea”. Gaineratu zuten, “beste lehentasun batzuegatik ez dute tren garatu”.

Sakana Trenaren Alde, AHTrik ez! Plataformako kideek gobernuetatik AHTren aldeko argudioei kontra egin zioten. AHT ez dute ekologikotzat jotzen: “ingurumena, landak eta soroak suntsituko lituzke. Nekazaritzari, gure ekonomiari eta turismoari kalte latza eginen lioke. Gure aisiarako eremuak eta Aralar eta Urbasa-An-



Joan den larunbateko manifestazioa Altsasan.

diarekin dugun hurbiltasuna hesi madarikatu batek moztuko luke. Urbasa-Andia eta Aralar artean basa-abereen ugalketarako murrua izanen litzateke. Landa eremu naturala eta emankorra eduki ordez, lur mugimenduak, hormigoi plantzak, zabortegeak, ezpondak, murrak, bide moztuak e.a. eta horri gehitu behar zaizkio horniduraren azpiestazio elektrikoak, eta bestelakoak”.

Argudio gehiago

Lanaren “interes orokorra eta ekonomia garapena sustatzen”

duela dioten txostenak “bankuen eta obra publikoaren inguruko enpresarien zirkuluetako fundazioek eginak” direla gaztigatu zuten plataformatik. Horien parean txosten “objektiboagoek ondorioztatzen dute AHTren ezarpena ekonomikoki eta garraio eta gizartearekiko zerbitzuen aldetik porrot ikaragarria dela, alde aurretiko bideragarritasun azterketa objektiborik eta plangintza orokorrik gabe egin, erabat irizpide arbitrarioak erabilia”. Azken txosten

horien egileak Europako Kontuen Auzitegia, Fedea fundazioa, unibertsitate irakasle ikerlariak, Nafarroako Kontu Ganbera eta beste ekonomia adituak dira.

Plataformatik gogorarazi zuten, Nafarroako AHTrako “1.400 milioi aurreikusten dira. Kopuru horrekin 300 eskola eraiki litezke”. Arduradun politikoei gogorarazi zieten bestelako behar batzuk badaudela eta gogorarazi zuten, Josefina Arregi klinika “porrot tekniko egiteko zorian Nafarroako Gobernuarekin duen hitzarmena eskasa izateagatik”. Bestetik, garatutako beste lurraldeetan AHT km gutxiago dituztela eta “askoz gehiago inbertitzen dute tren konbentzionalaren garapenean”.

Ukatu egin zuten AHTk “jendartea eta lurraldea kohesio-natzen” dituenik. “Kontu jakina da landa eremuaren txirotzea eta despopulazioa eragiten duela. Izan ere, Sakanan, halako txikizkioa egin arren, soilik pasatzen ikusiko genuke. Gainera, demonstraturik dago aberatsen eta txiroen arteko arrakala areagotu egiten duela”.

AHT “Estatuaren botere faktikoen inposiziozat” jo zuten: “indarrezko espropiazioak, atzeraezinezko obra burutuak, eta alde gutzietako presioa erabiltzeagatik, azken batean, bortxakeria administratiboa, poliziala eta judizialez inposatuta”. Nafarroako Gobernuak “ezinbesteko laguntzailea” dela gaztigatu zuten. Antolatzaileek manifestazio bukaeran esan zuten, 5.000 pertsona elkartu ziren. Altsasuko herri sarreretan Guardia Civilak kontrolak jarri zituen.



Arabako plataformen babesak

Arabarrek azaldu zuten, “gure lurraldea zentzurik ez duten azpiegituz bete, ekonomia eta gizarte errentagarritasunik ez duela 25 urtez argi gelditu den arren”. AHT “gizarte osoari eragiten dion arazo” dela esan zuten.

Arabarrek adierazi zuten, AHT “ez da ez aurrerapenaren ezta jasangarritasunaren bidea ere”. Etor-kizuna “garai bateko trenbide plataformetan” dagoela gaineratu zuten. Tren geltokiak hiriburuez aparte herri eta industrialdeetan behar direla nabarmendu zuten. Agintariei inbertsio publikoak “guztionak diren interesetara bideratzeko” eskatu zuten. Azkenik, maiatzaren 18ko Gasteizko manifestazioan parte hartzea deitu zuten.

IRITZIA

Garaia da trenaren garapenaren eredu aldatzeko!

ANJERU MIKEO AZPIROZ ETA MARTIN JOSE CELAYA GARCIA. SAKANA

TRENAREN ALDE, AHTRIK EZ! PLATAFORMA Tren Soziala Bai - AHTrik EZ! plataformatik oso modu positiboan baloratzen dugu Altsasun martxoaren 30ean “Tren Soziala Bai - AHT Gelditu. Herritarren borondatea errespetatu!” leloa-

rekin egindako manifestazioa. Izan ere, sei mila pertsonak osatutako uholdez bete genituen Altsasuko kaleak eta hori zinez pozgarria da.

Lehenik eta behin, esker ona adierazi nahi diegu parte hartu zuten pertsona guztiei, atxikimendua azaldu dutenei, itxirik egon

ziren tabernei eta, bereziki, manifestazioari halako ukitu alai eta koloretsua eman zioten animazio talde eta pertsona guztiei.

Manifestazioari giro alai eman nahi izan genion trenaren ereduaren eztabaidan arrazoiak erabat gure alde daudelako, eta hori ospatu nahi izan dugu. Hori horrela, gure aldarrikapenetan inoiz baino irmoago gaude, hau da, tren sozialaren aldeko apustu argia egiten dugu, alegia, egungo tren garatuz gaitasun goreneko tren lor daiteke.

Horregatik, Espainiako eta Nafarroako gobernuari egiten diegun eskaria da Alesbes-Tafallan hasitako obrak gelditzea,

Espainiako Gobernuak, Nafarroako Gobernuaren eta alderdi politiko batzuen konplizitateaz ezarri nahi duen AHTren eredu, ekonomikoki eta gizartearekiko zerbitzuen aldetik, porrot ikaragarria da. Gainera, kalte larriak eragingo lituzke gure ingurumenean eta herriak eta eskualdea txirotuko lituzke, despopulazioa bulkatuz.

Horregatik, Espainiako eta Nafarroako gobernuari egiten diegun eskaria da Alesbes-Tafallan hasitako obrak gelditzea,

egungo tren garatzeko ikerketa sakon eta objektiboa egitea, emaitzak jendaurrean jartzea, horien gainean herritarrei kontsulta egitea eta emaitza errespetatzea.

Hori horrela, garaia da trenaren garapenaren eredu zaharra aldatzeko eta egungo beharretara egokitzeko. Absurdoa da eredu suntsitzaile eta diru publikoaren xahutzaila hori justifikatzea dagoeneko eginik dauden gastuak errentabilizatzeko modu bezala. Ez dugu utziko gure etorkizuna izorratzen!



Ostatuko lanak. ARTXIBOA

Lizarragako ostata emateko deialdia aurki egingen dute

Medikuaren etxea ostatu bihurtzeko lanak despedituta, sukaldeak besterik ez da falta. Kontzejuak aurki egingen dute kudeaketa emateko deialdia: "hartzien duenak baldintza onak izanen ditu. Apenas ez du pagatu beharko, argindarra eta ura soilik. Eta gero kontzejuarendako hiru zerbitzu, esaterako, festetan kontzejuko kideendako bazkaria eta jubilatueendako bazkaria".

Olatzagutiko Udala bake epaile eta ordezkoren bila

Olatzagutiko Udalak jakinarazi du bake epaile titularraren eta ordezkoren karguak hutsik daudela. Karguak betetzeko deialdi publikoa egin zuen udalak Nafarroako Aldizkari Ofizialean atzo. Ardura hori hartzen interesa dutenek, legezko baldintzak betetzen badituzte, eskabideak udaletxean aurkeztu ditzakete 15 egun baldiodunetan.

Dorraoko Kontzejuak aukera gutxirako aurrekontua du

Dorraoko Kontzejuak 50.900 euroko aurrekontua du aurten. Iñaki Gaulabur Razkin kontzeju buruak azaldu digunez, gauza gutxi egiteko aukera izanen dute horrekin. Zerbitzuak mantendu eta maileguak pagatzera bideratuko da gehien bat. Nafarroako Gobernuak erabilera askeko funtsetik emandako 23.181,63 euroak zorra kentzeko erabili zituen kontzejuak. Oraindik zer edo zer gelditzen zaio. Egitekoen artean, besteak beste, maistruban etxeko teilatua eta bideren batzuk konpontzea ditu kontzejuak. Birtartean, 8 urteroko lanari heldu diote kontzejuak: eskatu dutenen artean herriko larreen banaketa egin du.

Etxarri Aranazko Udalak garbitzaile lan-poltsa osatuko du

Etxarri Aranazko Udalak ohar bidez jakinarazi duenez, garbitzaileak denbora batez kontratatzeko lan-poltsa sortzeko deialdia egin du. Etxarri Aranazko Udalaren Garbiketa Zerbitzuan aritu nahi dutenek bete beharreko baldintzak dira: eskola graduatua izatea eta euskara lan hizkuntza denez, berau ezagutzea. Ziurtagiririk ez dutenek proba pasa beharko dute.

Izena ematen interesa duten pertsonak heldu den astearteko 14:00ak arte dute Etxarri Aranazko udaletxean izena emateko aukera. Deialdiaren oinarriak udalaren www.etxarriaranatz.eus web orriaren kontsultatu daitezke.

Iturgain kalean eta plazan konponketa lanak egingak

Frontoiko atea zabaldu egingen da gurgildun aulkiak eta tresneria arazorik gabe sartzeko

BAKAIKU

Egoera txarrean zeuden Iturgain kaleko zati bat eta San Juan plazako beste zati bat konpondu zituzten joan den astean. Excavaciones y Transportes Santi enpresak egin zituen konponketa lanak eta haien truke 7.558 euro jaso zituen. Bakaikuko Udaletik jakinarazi digutenez, herrian egingen den hurrengo lana Iturrarte pilotalekuko sarrerara handitzea eta berritzea izanen da. Horrela, gurgildun aulkian joaten direnek ez dute sartzeko zailtasunik izanen. Eta frontoian konponketak egiteko (argiteria, margotzea...) tresneria sartzeko aukera izanen da ere, orain arte aldamiok muntatu beharra zuten. Lanak Toki Azpiegitura Planaren barruan jaso zuen Nafarroako Gobernuak 2017an eta udalak diru-laguntza izanen du. Lanak Belaize Erakuntzak enpresak egingen du 24.609 euroren truke.

Bestetik, udaletik gaztigatu digutenez, parte hartze prozesuaren barruan auzolana nolokoa izanen den erabakitzekeo prozesu bete-betean daude. Bakaikuarrek hainbat lantalde sortu dituzte eta uda aurretik auzolana nola egin behar den araututa utzi nahi dute.



Udako goizetan egingen da aisialdi programa. ARTXIBOA

Aisiz Blai programa, erroldatuta ez daudenendako ere

Altsasuarrek lehentasuna izanen dute, baina plazak badaude erroldatuta ez daudenek aukera izanen dute

ALTSASU

Udal Ludoteka Zerbitzuak proposatuta, Altsasuko Udalak haurrentako udan eskaintzen duen Aisiz Blai programarako sarbide irizpideak aldatu zituen joan den asteazkeneko bilkuran. Beraz, hemendik aurrera aipatu programan Altsasun erroldatuta ez dauden pertsonak parte hartzeko aukera izanen dute, talde bakoitzeko ratioa bete arte, beti ere adina eta izen emate ordena kontuan izanik. Udalak onartutakoaren arabera Aisiz Blai programan lehentasuna haur altsasuarrek izanen dute, herriko erroldan gutxienez urte bat eginga dutenak hain zuzen ere. Programan onartuak izateko baremoa ezarriko da eta lortutako puntuazioaren arabera parte hartuko dute programan.

Bestetik, udalak Amaia eta Bakea kaleetako sareak eta zorua

berritzeko eta Zumalakarregi plazako zorua berritzeko lanen kontratazio espediente onartu zuen. Guztien aurrekontua 1.221.898,92 eurokoa da (BEZ kanpo). Interesa duten enpresek euren proposamenak apirilaren 17ko 14:30era arte egin ditzakete. Lanak hartzen dituenak zortzi hilabete izanen ditu haiek despeditzeko.

Bilkura berean Altsasuko Udalak erabaki zuen Sakanako Mankomunitateari urte anitzetako plana egitea herriko zabor edukiontzia berritzeko. Geroa Baik, PSNk eta Goazen Altsasuk aurkeztu zuten mozioa, UPNk babestu zuen, EH Bilduk ez. Bestetik, UPNren abstentzioarekin eta gainontzekon aldeko botoarekin Sakana Harrera Haranaren migratzaileen aldeko mozioa onartu zen, gaurko 18:30eko plazako ekimenarekin bat egingez.

BIL TOKI
TABERNA • JATETXEA

Pintxoak
Bokatak
Plater konbinatuak
Karta

Astelehenetik ostiralera
Eguneko menua
9€

Asteburuetan
Menu berezia 25€

948 467 876 · Altsasu

Lizarragako
kontzejuak

Iur saila salgai

jartzen du enkante
bitartez, etxebizitza
bat egiteko aukera
ematen duena.

Informazio gehiago
www.ergoiena.com
weborrian.

sorgiñak
taberna

LAKUNTZA

948 576 357

Ogiaren artisauak

PORTUKO okindegia

ETXARRI ARANATZ: 948 460 988
ALTSASU: Denda: 948 563 822 · Lantegia: 948 467 153



Gazte irurtzundarrak festetako aurreneko kalejiran. ARTXIBOAK

Larrazpi egun berezia ospatuko dute

Irurtzongo gazte elkarteak bihar, eguerditik aurrera ospatuko du. Aurten bosgarren aldia da ospatzen dutena. Eguerditik ordu txikiak bitartean luzatuko den egitaraua prest dute. Elkartearen nondik norakoez azalpenak eman dizkigute

IRURTZUN

Duela bost urteko “idea zoro bat” izan zena bost urte bete ditu: Larrazpi Eguna. Bazkaria hartuko du gazte elkarteak 14:00etan. Mahaitik jaso gabe, 16:00etan, mus eta partxis txapelketak jokatuko dituzte. Elkartetik 18:00etan atera eta tabernaz tabernako gurdi-poteoa egingen

dute. Eguna despeditzeko 22:30etan musika jaialdia hasiko da: Bourbon Kings, Txartoak, Alerta Gorria, Egurra ta Kitto eta DJ Jotatxo. Egunaz disfrutatzeko gonbidapena luzatu dute Irurtzundik. Julen Iragi, Larrazpi elkarteko kideak elkarteri buruzko argibideak eman dizkigu.

Larrazpi gazte elkarte noiztik?

Zehazki ez dakigu. Hasieran beste kutsu bat zuen, baina gazte elkarte gisa ez dakigu noiz hasi zen. Baina gutxi gorabehera 40-45 urte. Larrazpi beti izan da Irurtzongo gazteen elkargunea, belaunaldiz belaunaldi. Ez du kutsu jakinik. Belaunaldi bakoitzak nahi bezala erabiltzen du.

Zein da zuen funtzionamendua?

Betiko elkartearen egitura mantentzen dugu, badago junta bat, idazkari bat... Lanak banatu egiten ditugu. Bakoitzak lan batzuk hartzen ditugu. Eta denen lanarekin, pixka bat autogestioarekin, aurrera jarraitzen dugu. Juntakoak hilabetero elkartzen gara, gutxi gorabehera. Hilabete honetan Larrazpi Eguna dugula, agian bilkura informalak egiten ditugu. Eta urtean behin edo bitan, kasuak kasu, batzar orokorrak egiten ditugu.

Zein adinekoak elkartzen zarete?

18-20 eta 30 urte artekoak.

Zeintzuk dira zuen helburuak elkarte bezala?

Helburu nagusia da herriko gazteak elkartzea, guztien artean giro ederra sortzea eta, gero, herriari kultur ekarpena egitea. Batzuetan, agian, hitzaldiak antolatzen ditugu, politikoagoak. Baina helburu nagusia herriari bizitasuna ematea da.

Udalarekin eta herriko beste eragileekin harremanetan zaudete?

Udalarekin erlazio formala dugu. Batzuetan haien azpiegitura erabiltzen dugu gure gauzak antolatzeko. Eta, badakizu, diru kontuak eta horrelakoak. Herriko beste eragileekin, adinagatik, elkartzen gara gazte asanbladarekin gehien bat; gauzak partekatzeke, elkar laguntzeko...

Irurtzunen Larrazpi gazte elkarte eta gazte asanblada dituzuelako.

Larrazpi betidanik izan da eta Irurtzun Arakilgo Gazte Asan-

blada (IAGA) duela urte gutxi sortu zen. Agian helburuak antzekoak izan daitezke, baina, beno, horrela da: Irurtzunen berezitasun bat. Elkarrekin gauzak egiten ditugu. Nahiz eta elkarrekin kartel bat ez atera, elkar laguntza dago beti. Esaterako, Maravillas gaztetxearen aldeko pintxo-potea bat egin genuen elkarrekin ilbeltzean. Elkarrekin bagoaz gauzak antolatzen.

Nolako jarduerak antolatzen dituzue?

Urtero kirol txapelketaren bat antolatzen dugu. Irurtzongo festa guztietan kontzertuak antolatzen ditugu, pintxo-poteak antolatu izan ditugu, noizean behin hitzaldiren bat, Emakumeen Jardunaldien harira frontenis txapelketa antolatu genuen... Ez dugu egutegi finkorik. Ideiak sortu ahala gauzatzen saiatzen gara.

Herriko gazteen topaleku zaretela esan daiteke?

30-35 gazte biltzen gara Larrazpin. Gure elkarte da. Irurtzunen azken urteetan gazte-bajeren loraldia egon da. Bajeretako jende hori ere Larrazpira hurbiltzen da. Larrazpin kuadrilla oso desberdinak elkartzen gara eta hori ongi iruditzen zaigu.

LARRAZPIK ETA IAGAK ELKARREKIN EGINEN DUTE KORRIKA, AGINAGAN. 23:30EAN HITZORDUA JARRI DUTE

Maravillas gaztetxearekin elkartasun eguna iragarri dute

Sakanako egun hori apirilaren 27an izanen da Ziordian. Maiatzaren 3an manifestazioa egingen dute Altsasun

SAKANA

Iruñeko Alde Zaharreko Maravillas gaztetxea ilbeltzaren 8an hustu zuten. Hustearen harira zabalduak auzibidean makina bat pertsona epaituko dituzte, haietatik lau sakandarrak dira. Beste ibarreko hiru pertsonak gaztetxearen hustea salatzeke errepide mozketan parte hartu zuten eta auzipetuak daude. Gaztetxearen hustea salatu eta epaiketei aurre egiteko Sakanan bertan lanketa propioa egiteko batzarra egin zen Altsasuko gaztetxean martxoaren 23an. Batza-



Maravillas gaztetxea. XABIER LETONA

rreko lehen emaitza jakinarazi dute: Maravillasekiko Sakanako elkartasun eguna Ziordian hartuko du apirilaren 27an. Egitarauaren berri aurrerago jakinarazi dute, baina lelo bat zabaldu dute: *epaiketa guztien gainetik, Maravillas herriarendako!*

Bestetik Lakuntzako Biltoki gazte elkartearen Maravillasi buruzko hitzaldia izanen da gaur, 19:00etan. Dirua lortu eta epaiketara bideratzeko Altsasuko gaztetxeak ostiralean, 20:30etik aurrera, elkartasun pintxo-potea egingen da. Eta helburu bera du Iturmendiko Gazte Asanbladak maiatzaren 1erako antolatu duen herri bazkariak. Bazkarirako izen ematea gaztetxeetan edo ohiko tabernetan egin daitekeela gaztigatu dute. Azkenik, Altsasun, maiatzaren 3an manifestazioa egingen da.

Ikasleek Sakanako Autodefentsa Sarea sortu dute

Ibarreko ikastetxeetako ikasleen beharrei aurre egin nahi diete. Aurreneko eskaera Ikasle Gelak dira

SAKANA

Altsasu institutuko eta Andra Mari eta Iñigo Aritzta ikastoletako autodefentsa sareak koordinatzeko eta elkarlanean aritzeko sortu dute Sakanako Autodefentsa Sarea. Gaztigatu dutenez, “jada lehenengo borroka bateratuari ekin diogu, Ikasle Gelen beharra aldarrikatzen hasi gara”. SASeko kideek azaldu dutenez, “ikastetxe bakoitzak bere behar eta baliabide propioekin landuko du borroka, baina elkarlanean ariko gara gure helburuak lortu arte”. SAS-eko kideek hiru ikas-

tetxeetako ikasleak “sareetara gerturatzeraz eta ekintzetan parte hartzeraz” deitu dituzte. Eta Sakanako gazteei ere zuzendu zaizkie: “elkartasun zein babesa adieraztera eta egingen ditugun ekintzetara batzeko”.

Altsasu institutuko Autodefentsa Sareko kideek jakinarazi dutenez, urte hasieran sortu zuten antolakundea, “ikastetxean genituen arazoei aurre egiteko eta ikaslearen saretzeari ekiteko. Horrela, hamarnaka ikasle mobilizatu eta hainbat borroka lantzeari ekin genion”.

Porlandegiko langileak zuzendaritzaren zain

Portlandeko langile guztiendako lan baldintza berdinen alde ari dira protestan. Horregatik, bigarren greba eguna egin zuten asteartean langileek. Zuzendaritzak aurki bilerara deituko dituela jakinarazi die

OLATZAGUTIA

Cementos Portland Valderrivas enpresak Olatzagutian duen porlandegian ez zen ekoizpenik izan bigarren asteartez. Langileen 24 orduko bigarren greba izan zen. Protestarekin enpresari indarrean dagoen lan hitzarmena betetzeko eskatu nahi izan diote. Juan Jesus Lizarragak (ELA) argitu digu lan hitzarmenak hiru urte dituela eta “enpresak urte bat dabil puntu batzuk jende batzuei ez aplikatzen. Eta argi eta garbi esan du kontratazio berriendako ez duela guk dugun lan erregulazioa, beste hitzarmen merkeagoa nahi duela. Nahikoa dela esan dugu eta planto egin dugu. Guk lan baldintza berdinak nahi ditugu berriendako eta gurretako ere”.

Enpresak langile berriei ezarri nahi dien aldaketetako bat hau da: jai eguna duen langile bat lanera joaten bada, lanaldi hori aparteko ordu gisa kobratzen du eta, gainera, beste jai egun bat eskuratzen du. Lizarragak jakinarazi digunez, “enpresak hori egungo langileren batekin egin du eta salatuta dago. Enpresak egutegian zehaztuak ez dauden orduak beste modu batean tratatzea”. Bide batez, langileek jakinarazi digutenez, Cementos Portland Valderrivasek ez die



Porlandegiko langileak denendako baldintza berdinen alde protestan.

aurtengo lan egutegia eman eta langileek horren atzean “xantaia edo presio modua” ikusten dute. Lan egutegian “oporrak, deskantsu egunak eta denak” sartzen dira. Langileen susmoa da enpresak estatu guztiko lantokietan lan hitzarmen bera ezarri nahi duela. “Momentuz gure lan baldintzak beste porlandegietakoak baino bastante hobeagoak dira”.

Bileraren zain

Lan hitzarmena urtearekin batera despedituko da eta aldeek berria negoziatu beharko dute.

Lizarragak esan digunez, “badaramagu 10 urte ez dugula hobetzen. Azken hiru urteetan jaitziera handiarekin. Horretarako, jaitzierak egiteko, enpresa beti prest egoten da. Mantentzeko ezer. Kontratazio berriekin ez du gure lan erregulazioa errespetatu nahi”.

Asteartekoaren ondoren zuzendaritzak enpresa batzordeari jakinarazi dio aurki bilerara deituko dituela. Madrilgo zuzendaritzarekin hizketatuko dira. 104 langile ari dira, “hiru laurdenak edo grebaren alde gaude”.

presa sakandarrek erakusleihori baliatu dute euren produktuen berri emateko. Nafarroako haize-energia sektoreko enpresen elkarteak, Enercluster, ere azokan presente dago. Haren barruan daude aipatutako Sakanako bi enpresez aparte Eseki eta Laneko. Bestetik, aste honetan Laneko eta Jatorman enpresetako ordezkariak Indiako haize-energiaren sektoreko enpresekin harremanak izan dituzte. Asiako herrialdean negozio aukerak aztertze bilerak izan dira.

ELArendako Lanekoko langileen ordezkariak

Laneko enpresan hauteskunde sindikalak egin berri dira eta ELA sindikatuak jakinarazi duenez, enpresa batzorde berria bere kideez osatuta egonen da erabat, bost kide guztira. Aurreko enpresa batzordean ELAk ere gehiengo zuen: hiru ordezkari zituen eta UGTk eta CCOOK bana, beraz, bi ordezkari gehiago lortu ditu ELAk.

Sakanako enpresak Wind Europe azokan parte hartu dute

Europako haize-energia sektoreko erreferentziatzoko azoka da WindEurope eta bertan mundu mailako haize-sektoreko agente gehienek parte hartu dute. Azokan 300 erakusle daude eta 50 herrialdeetako 7.000 profesionalen elkartzea da. Bilboko erakustazokak ez du azoka hutsa hartu, hitzaldiak ere izan dira. Industrial Barranquesa eta Jatorman en-



Iruñeko hilerrian astelehenean eman zieten lur gorpuei.

Identifikazio zain, 1936an eraildakoak Iruñeko hilerrian

Urbasa, Otsaportillo eta Iberotik atera eta identifikatu gabe dauden frankismoaren 9 biktimari lur ematea

SAKANA

Aranzadi zientzia elkarteak Nafarroako Gobernuarekin duen hitzarmena betetz, herrialdeko hainbat leze, hobi eta ezpondetatik 1936ko estatu kolpean eraildako makina bat pertsonen hezurdurak berreskuratu ditu. Hala ere, ezin izan dira denak identifikatu. 46 pertsonen hezurdurak daude izen-abizenak emateko zain. DNA atera zaie eta desagertuen senideren batenarekin bat egiten duen bitartean, hezurdura horiei guztiei lur eman zieten Iruñeko hilerrian astelehenean.

1936an eraildakoen senideek sartu zituzten hilkutzak hiltegiara. Horien artean zegoen, besteak beste, Concha Dieguez etxarriarra, bere aita Altsasuko Sozarretan, errepide bazterrean, erail zutena eta oraindik opatzea lortu ez dutena. Lur emandako pertsonen hezurdurak Nafarroako hainbat tokietatik ateratakoak ziren, tartean Otsaportilloko lezetik eta Iberoko Zurbaoko hobitik.

Sakanako bederatzi faltan

Aranzadi zientzia elkarteak kideak makina bat hobi induskatu dituzte azken urtetan. Haietako hiruetan sakandarren gorpuzkiak opatu dituzte. Eta hiruetan identifikatu hezurdurak daude. Urbasa saroiko lezetik hamar gorpu atera zituzten eta bederatzi identifikatu daude: Balbino Garcia de Albizu Asurabarrena, Gregorio Garcia Larranbeberre, Balbino Bados Garcia, Jose Ur-

bizu Berasategi, Narciso Artola Razkin, Clemente Araña Miguel de Etxarri, Paulo Garciandia Arin, Andres Gonzalez eta Antonio Maiza Miranda. Beraz, hezurdura bati izen abizenak ematea falta da.

Urbasa lezean Aranzadikoek Meliton Agirre Lezea, Francisco San Roman Galbete, Domingo eta Francisco San Roman Otxoa anaia, Jose Ubeda Sanchez, Victor Urkijo Tobalina eta Migel Bergara Bureau identifikatu zituzten. Iberon hainbat gizon fusilatu zituzten, tartean hiru uhartear: Victor Martirena Alegria eta Silverio Astiz Ezkurdia eta Silverio Astiz Lakuntza aita semeak. Aurrenekoa bakarrik identifikatu dute. Urbasa eta Iberoko launa kutzari eman zieten lur Iruñeko kanpo santuan.

Aurten 80 urte bete dira Gerra Zibila bukatu zela eta diktadura garaian apirilaren 1a Garaipenaren Eguna izan zen. Egun horri beste zentzu bat eman nahi izan zion Nafarroako Fusilatuen Senitarteko Elkarteak, berak antolatutako baitzuen ekitaldia. Horregatik, eraildakoen makina bat senide elkartu ziren. Eta haiekin batera, Uxue Barkos presidenteak, Ana Olló Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetarako kontseilariak eta Joseba Asiron alkateak parte hartu zuten 46 biktimaren identifikatu gabeko gorpuzkiak lurperatzeko antolaturiko ekitaldian. Eta “biktimen egia, justizia eta erreparazioerako eskubidearen” beharra azpimarratu zuten.

Asiako erlamin habiak kentzeko laguntza eskaera

Espezie berriaren kontra egiteko garai onena udaberria dela gatzigatu dute Nafarroako Gobernuak eta suhiltzaileek

SAKANA

Asiako erlaminak euren oinarriko habiak egiten hasi berri dira. Balkoietan, garajeetan, portxe eta odor, abazpi edo rafetan egiten dituzte Asiako liztorren erreginek oinarriko habiak. Marroi-arre kolorekoak dira, 4 cm-ko zabalera eta 6 cm-ko altuera izaten dute. Horrelako habi bat kentzean hurrengo urtean 50 habi gutxiago izanen dira. Espezie inbaditzailearen habiak kentzeko garairik eraginkorrena udaberria da. Horregatik, Nafarroako Gobernuak eta Nafarroa-



ko Suhiltzaileek aipatutako etxeetako tokietan Asiako erlaminen habiak ote dauden begiratzeko eskatu dute. Bakarren bat opatuz gero, udaletxean jakinarazteko gomendatu dute.



Kostuelgo iturria berreskuratua izan ondoren. UTZITAKOIA

Etxarriar talde batek bargan auzolana egin du

Kostuelgo iturria berreskuratzeko beharrezko lanak egin dituzte, baita seinaleztatu ere

ETXARRI ARANATZ

Makina bat jende hartzen du egunero Artzabalerako, maiatzerako, bidea. Oinez gehienak, korrikan batzuk. Etxarri Aranzko Udalak hargintza tailerra antolatu zuen 2013an eta parte-hartzaileek harriari 20 bat toponimoren izenak zizelkatu zituzten, gero zegokien parajeen jarri zirenak. Harrez geroztik, esaterako, maiatzera igotzen denak badaki non dagoen Arrigorri. Bidean goraxeago dago Kostuel parajea.

Han Kostuelgo iturria dago eta horren berri zuten etxarriar

batzuk berreskuratu egin dute. Iturria eta bere aska agerian utzi, urari berriz bidea eman, garbitu eta Artzabalko bidetik iturrira joateko seinaleak jarri dituzte. Seinaleei segituz, bidetik mendebaldera 90 metro egin behar dira iturria opatzeko. Jakina, ura tratatu gabe dago, baina kalitate onekoa da. Boluntario etxarriarrek euren asmoaren berri udalari eman zitoten eta udala izan da kartelak enkargatu dituenak. Lana, berriz, etxarriar talde batek egin dute eta Etxarri Aranzko Udalak bere esker ona azaldu die.

Pertsonen arteko zubigintza ariketarako gonbidapena

Kulturen arteko harremana sustatzeko ekitaldia izanen da Foru plazan, gaur, 18:30ean

ALTSASU

Sakana Harrera Haranak harresiak bota, zubiak eraiki lelopean jarduera antolatu du gaurko. Sakandarrak bertara hurbildu eta ekitaldian parte hartzea animatu ditu. Antolatzaileek jakinarazi dutenez, hainbat hizkuntzatan bakearen aldeko hitzak, olerkiak, esaldiak irakurriko dira. Horrekin batera, deialdiaren leloa, harresiak bota, zubiak eraiki leloa hainbat hizkuntzetan idatzia egonen da. Horretaz aparte, plazatik pasatzen direnak Saharako hainbat emakumezkoek prestatutako tea dastatu eta harekin gozatzeko aukera izanen dute.

Gaurko ekitaldia Herrien, Pertsonen eta Eskubideen Besarkada ekimenak maiatzaren 5erako iragarria duenaren atariko izanen da. Besarkada ekimenak gizatasunaren alde, migratzaileen



Sakana Harrera Haranaren erakusketa.

alde Europar harrera egin dakien eta libre ibili daitezzen, eta neofaxismoaren kontra europarrak adieraztea du helburu. Kontinente mailako ekimen da eta Giza Eskubideen Adirerazpen Unibertsalean migratzaileez esandakoa betetzea eskatzen du.

Europako Artisau Egunean ate irekien jardunaldiak forjan

Gaur 17:00etatik 20:00etara, bihar 09:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 20:00etara eta etzi goizez

IZURDIAGA

Artisautzaren Europako Egunak dira apirilko aurreneko aste-koak. Ekimenarekin hainbat ogibideren eta artisauen lanaren sekretuak jendeari ezagutarazi nahi zaizkio. Horien aberastasun handia eta berezitasunaren berri ere eman nahi dute. Euren lantokiak publikoari zabalduko dioten artisauen artean Brun anai izurdiagarriak daude, euren forjan ate irekien jardunaldiak antolatu dituztenak asteburuan.

Adin guztietako bisitariak Brun forjariaren lana bertatik bertara ezagutu eta haiekin praktikatzeko aukera izanen dute. Haurrendako tailerra ere antolatu dute. Gainera, forjaren interpretazio gunea bisitatzeke aukera izanen dute. Horrek forjaren ekoizpen prozesu guztia ezagutzeko aukera ematen du: harrobietan burni minerala ateratzea, sutegiko



Forjariak lanean. ARTXIBOIA

lanketa, guztiz landua dagoen arte. Kanpoko aldean dagoen erakusketa eta dokumental bat ikusteko aukera izanen dute bisitariak. Brun forjariak zazpi belaunaldietako jakituria pilatzen dute. Haienean XVII. mendeko auspoa dago.



Lakuntzako Biltokik bere eguna ospatuko du bihar

Gazteak elkartzeko eta harremanak egiteko tokia. Funtzio hori bete d u belaunaldiz belaunaldi. Ez baititu alferrik 51 urte bete. Biharko ospakizunaren aurretik, gaur, 19:00etan Maravillas gazte-txeari buruzko hitzaldia izanen da eta, ondoren, pintxo-potea.

Bihar eguerdian Biltokikoek buruhandiak aterako dituzte kalera. 15:00etan bazkaltzera eseriko dira. ElektroZarata txar-rangarekin batetik bestera ibiliko dira 18:00etatik aurrera. 20:30ean Sustrai Berriak taldearen kontzertua izanen da. Eta 23:30etik aurrera Bake Faltsua, Against You eta Embajada taldeen emanaldiak hartuko ditu Biltoki elkarteak.

Erlijio askatasunari buruzko txostenaren aurkezpena

Beharrean Dagoen Elizari Laguntza (ACN) pontifize-fundazioak ondu duen Munduko erlijio askatasunari buruzko 2018ko txostena aurkeztuko du gaur, 19:00etan, Zamartzeko santutegian. Erljio askatasuna Giza Eskubideen Adirerazpen Unibertsaleko 18. artikuluan jasoa dago. Fundazioak 196 estatutan eskubidea zein egoeratan dagoen aztertu du. Sinesbide guztiak kontuan hartuta, txostengileek ondorioztatu dutenez, "munduko hamar pertsonetatik seik ezin dute erabateko askatasunez adierazi bere fedea".

Txostenean jasotzen denez, "munduko 38 estatutan erlijio askatasunaren kontrako urraketa handiak daude". Txostenaren datuaren arabera kalkulatu dute "327 milioi kristau erlijio jazarpena dagoen estatuetan bizi direla eta 17 milioi diskriminatzen dituzten estatuetan bizi direla. Hau da, munduko bost kristautik bat jazarpena edo diskriminazioa bizi dute euren estatuetan".

Ezkontzak



Ezkundu aurretik, ilusioaz eta urduritasunaz gain, kontuan hartu beharreko hainbat gauza prest eduki behar izaten dira. Lentzeria, loreak, orrazkera, jantziak... aurreikusita egon behar dira egun handia borobila izan dadin. Sakanan bertan guzti hau profesionalen esku uzteko aukera paregabea dago, urrutira joan gabe. Jarraian aukera batzu luzatzen dizkizugu, zuzenean haiengana jo zailentzarik gabe, zerbitzu bikaina emango dizute eta!



BU EK ILEAPAINDEGIA

Fernando Urkia. 1
Arbizu

— Ileapaindegi mistoa —

- Osagai naturalak produktu eta kolorazioetan
- Manikura eta pedikura erdi-iraunkorrek
- Makillajea · Depilazioak
- Diodo laserra

948 461 698

Lizardi
ILEAPAINDEGIA

Amaia Benjumea

649 444 018
Nagusia 12, 1.B
Etxarri Aranatz

Mari Jose
ileapaindegia

Arbizu
948 460 912
686 192 252

NEREA
ILEAPAINDEGIA

NEREA BAKAIKOA
Ermiñeta kalea 4 · 948 567 331
LAKUNTZA

LIU·JO

Sakanaoptika
optometria - oftalmologia - kontaktologia

948 563 124
Intxostia zeharbidea 10
Altsasu
www.optikasakana.com

tu tienda especial
948 467 215 | Altsasu

Zure ezkontzako
genbidapenak
eta apaingarriak

BK DISEÑO GRAFICO
WEB DISEÑO
COMUNICACIÓN

948 564 275

13
UDABERRI
LOREDENDA

Garzia Ximenez kalea 31 (Altsasu)
948 564 260 | 610 098 595
www.13udaberriloredenda.com

Zuen egun berezian laguntzeko gaude



AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKENEKO EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 948 56 42 75 / gutunak@guaixe.eus

OSTIRALA 5

ALTSASU Nazioarteko gazte astea. Munduko sukaldaritza. 17:30ean, Intxostiapuntan.

UHARTE ARAKIL Beharrea dagoen elizari laguntza. 19:00etan, Zamartzen.

LAKUNTZA Biltoki eguna. Maravillas gaztetxearen inguruko hitzaldia. Ondoren, pintxopotea. 19:00etan, Biltokin.

ETXARRI ARANATZ Beilatokia toki egokian. Kontzentrazioa. 19:00etan, Kale Nagusiko 7.ean.

ARBIZU ETA ETXARRI ARANATZ Euskal presoak Euskal Herrira. 20:00etan, plazan.

ALTSASU Altsasukoak aske kontzentrazioa. 20:00etan, udaletxe parean.

IRURTZUN Tanttaka konpainiaren *Soka* antzezlaren emanaldia. 20:30ean, kultur etxean.

ALTSASU *Maria, Reina de*

Escocia filmaren emanaldia. 22:00etan, lortia kultur gunean.

IZURDIAGA Artisautzako Europako Egunak. Ate irekien jardunaldia. 17:00etatik 20:00etara, Brun forja.

LARUNBATA 6

ALTSASU Taup-taup... zatoz! Sortzen festa sustatzeko herri kirolak. 11:00etan, frontoian.

ETXARRI ARANATZ Taup-taup... zatoz! Sortzen festa sustatzeko herri kirolak. 17:00etan, frontoian.

ALTSASU Nazioarteko gazte astea. Mundua nire oinetan bakarriketa. 18:30ean, Intxostiapuntan.

IRURTZUN Larrazpiko eguna. Kontzertuak: Bourbon kings, Txartoak, Alerta gorria, Egurra ta kitto eta DJ Jotatxo. 22:30ean, Barazkin.

IZURDIAGA Artisautzako Europako Egunak. Ate irekien jardunaldia.

09:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 20:00etara, Brun forja.

IGANDEA 7

ALTSASU *Spiderman, un nuevo universo* familiarreko filma. 17:00etan, lortia kultur gunean.

LAKUNTZA Biltoki eguna. Elektro zarata. Ondoren, kontzertuak: Sustrai berriak, Bake faltua, Against you eta Embajada. 18:00etatik aurrera, Biltokin.

ALTSASU Nazioarteko gazte astea. *Intocable* filmaren proiektzioa. 18:00etan, Intxostiapuntan.

ALTSASU *Maria, Reina de Escocia* filmaren emanaldia. 19:30etan, lortia kultur gunean.

ALTSASU *La batalla de los sexos* zineforum filmaren emanaldia. 19:40etan, lortia kultur gunean.

ASTELEHENA 8

ALTSASU Pentsio duinen alde. Nafarroako Pentsionistak Martxan eta Otsailaren 22ko Plataformak deitutako elkarretaratzea. 12:00ean, Udaletxe parean.

IZURDIAGA Artisautzako Europako Egunak. Ate irekien jardunaldia. 09:00etatik 14:00etara, Brun forja.

ASTEARTEA 9

ALTSASU *Haurren elikadura 0 hilabetetik aurrera. Osasuna elikaduraren bitartez programatu daiteke? 0-3 urte bitarteko umeen gurasoendako (zaintza zerbitzua egonen da).* 17:00etan, Txioa haur ikastolan.

ASTEAZKENA 10

LAKUNTZA Sakanako Sozioekonomia Behatokiaren



IORTIA KULTUR GUNEA

ALTSASU *Hirigraf* Xabier Idoate artistaren erakusketa. Apirilaren 2tik 28ra. Astelehenetik ostiralera 18:30etik 21:00etara, larunbatetan 18:00etatik aurrera eta igandean 16:00etatik 20:30era, lortia kultur gunean.



ARBIZU Guaixe eta Oixe zaharren erakusketa. Guaixeren 25. urteurrena. Apirilaren 1etik 17ra arte. Astelehenetik ostiralera 16:00etatik 20:00etara, liburutegian.



ALTSASU Adela Sanchezen eta A. Arrizabalagaren artelanen erakusketa. Otsailaren 15etik apirilaren 15era. Asteartetik ostiralera 16:00etatik 21:30era, eta asteburuetan 10:00etatik 18:00etara, Dantzaleku tabernan.

bilera. 17:00etan, Sakanako Mankomunitatearen egoitzan.

18:00etan, Intxostiapuntan.

ALTSASU *Perdiendo el este* filmaren emanaldia. 19:00etan, lortia kultur gunean.

OSTEGUNA 11

ALTSASU Nazioarteko gazte agenda. Herri bixkien jolas handiak.

ALTSASU *Carmen y Lola* zineforum emanaldia. 19:00etan, lortia kultur gunean.

ZORION AGURRAK



June
Zorionak June!! Neskatza poxpoliñonek 2 urte beteko ttu gaur, eta pensatu degu muxuka janko degula alkarzeten ganien. Zu familikuak.



Alaitz eta Izaro
Zorionak bikote!! Alaitzek 7 urte eta Izarak 10 urte jada!! Muxu handi bana!!








DE KOVEN NAVARRA
CARPINTERÍA DE P.V.C.

info@dekovenavarra.com
www.dekovenavarra.com
Ibarrea industrialdea, 9 pabiloia · **ALTSASU**
Telf./Faxa: 948 468 360 · Telefono mugikorra: 690 641 860




IRAGARKI SAILKATUAK

LANA/NEGOZIOAK

LAN ESKAINTZA

Arbizu: estetizista autonomo baten bila nabil. Buxek ileapaindegiaren barruan daukadan gela alokatuko nioke. Fernando Urkia, 1. Arbizu. Interesatuak deitu 663 540 272.

IKASTARUAK

Altsasuko Udaleko Emakumeen Bilgunea zerbitzuaren ikastaroa: Autodefentsa feminista apirilak 6, 9:00-14:00 / 15:00-18:00. Ikastaroak 12,50. Izen ematea: 948 564 823/ 948 468 343 tfoetan, Gure-etxean edo berdintasuna@altsasu.net emaillean.

OHARRAK

Odol-emateak Altsasun: Apirilaren 23, 24 eta 25ean 17:00 - 20:30 eta 26an 9:30-13:00. Adona.

Etxarriko irakurle taldea: Apirilaren 11n, ostegunean, 19:00etan Etxarri Aranazko liburutegian elkartuko dira eta Alberto Ladronen "Arotzaren eskuak" liburua izanen dute hizketagai. Gonbidatuta zaude.

Crowdfunding Kanpaina: Aritz Ganboa de Migel artzain-gaztagile arba-zuarraren erronkan parte hartzerako gonbidatuta zaude. Arruazutik izabarraino mendi lasterketa eta gazta trukaketa "Bideak" dokumentalean jasotzeko kanpaina laguntzeko diru bilketa egiten ari dira. Informazioa <http://www.bideakdokumentala.eu/eu/crowdfunding-kanpaina-web-gunean>.

Bidelagun izan nahi? Mintzakide programaren bidez euskara praktikatzera elkartzen dira hizkuntza ikasten ari direnak eta hizketatzeko ohitura dutenak. Euskaldun batekin, bidelagun batekin aritzen dira. Bidelagun izan nahi duzu? 600 482 024 telefonon edo AE-Kren Itsasi euskaltegian duzu informazio guztia guztia.

Mintzakide proiektua. Egonkortzeko denon laguntza behar dugu, lagundu zabalitzen eta finantzatzeko: <http://goteo.org/project/zu-gabe-ezin>

Sakana Trenaren alde. Taldea astelehenero, 19:00etan, elkartzen da. Behin behineko biltokia

LABek Altsasun duen egoitzan da, han egiten dira bilerak.

3MBk kontu korrontea zabaldu du Rural kutxan eta jendeak han egin ditzake ekarpenak 3008 0093 66 2460985811.

Auzolana Josefina Arregui klinikan. Parte hartu nahi dutenek 948 56 38 50 (klinika) edo 689 03 51 02 (Patxi) telefonoetara hots egin dezatela

Josefina Arregui klinikako bazkidea izan nahi baduzu, urtean 12 euro edo nahi duzun kopurua eman dezakezu. Informazio gehiago amigosjosefinaarreguilagunak@gmail.com edo amigosjosefinaarreguilagunak.blogspot.com

Enplegarritasuna hobetzeko bitartekaritza eta aholkularitza zerbitzua. Sakanako Enpresariaren Elkarteak langabeei eta lan bila dabilzanendako duen aholkularitza zerbitzua da. Harremanetarako, 948 468 307 telefonoa.

www.iragarkilaburak.eus

JAIOTZAK

• **Zoe Nikhole Ortiz Acosta,** martxoaren 31n Altsasun

HERIOTZAK

• **Francisca Ruiz Lazaro,** martxoaren 21ean Altsasun
• **Jose Luis Betelu Azpiroz,** martxoaren 27an Lakuntzan
• **Jesus Marin Gorriti,** martxoaren 27an Uharte Arakilen
• **Antonio Gonzalez Perez,** martxoaren 28an Altsasun
• **Restituto Marañon Zamillo,** martxoaren 29an Olaztin

INFORMAZIO HAU EPAITEGIETAN ETA UDALETAN JASOTZEN DA. AGERTU NAHI EZ DUENAK, HAN JAKINARAZI DEZALA.


Zure iragarki laburra gure

esmerkatu txikian

948 56 42 75

iragarki@guaixe.eus

www.guaixe.eus/iragarkiak



IRAGARKIA JARTZEKO:

948 564 275

IRAGARKI@GUAIXE.EUS

WWW.GUAIXE.EUS/IRAGARKIAK

• Asteazkeneko 13:00ak arte jasotako iragarki bakarrik iragarriko ditugu.


• GUAIXE ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen

gorabeheren erantzukizunik. **ORDAINTZEKO ATALAK:**

- Etxebizitza Saldu/Errentan.
- Lokalak Saldu/Errentan.
- Irakaskuntza ("partikularrak") eman.
- Salmentak, erosketak eta trukeak.
- Iragarki Guaixe paperean eta Guaixe.eus-en argitaratuko dira.
- iragarki laburak: 3 euro aste bakoitzeko (BEZ barne).
- Epea: aste bereko asteazkeneko 13:00ra arte.

EGURALDIA ASTEBURUAN

Ostirala, 5



Egun goibela, nahiz eta ateri mantenduko den ia egun guztian zehar. Goizaldean mendebaldeko haize bizia ibiliko da.

Larunbata, 6




Hotz egingo du goizaldean, baina egunak aurrera egin ahala euriarekin batera, tenperaturek gora egingo dute.

Igandea, 7



Euria etengabe arituko da igandean, noizbehinka zaparrada mardulak eta txingorra egin dezake gainera.


Astelehena, 8



Ez da hainbesteko probabilitaterik egongo euria egiteko, Korrika Sakanara sartzen denean atertuko duela espero dugu.

ESKELAK JARTZEKO: 948 56 42 75
edo eskelak@guaixe.eus

- ▶ Eskelen tarifak: 50,82 € / 96,80€ / 130,68 € prezio hauek BEZa barne dute.
- ▶ Bazkideek % 10eko deskontua dute.
- ▶ Eskelak jasotzeko azken eguna: osteguna goizeko 11:00ak baino lehen.





IZARRA
HEMEN, ZURE ONDOAN
AQUÍ, A TU LADO

«Bizitzan badira une batzuk zeinetan norbait ondoan behar dugun»

BEILATOKIAK

ALTSASU Santa Cruz, 6
ETXARRI-ARANATZ Nagusia, 2

948 05 90 90 · www.izarratanatorio.com

IRACHE
tanatorioak

Tanatorioak: Altsasu – Irurtzun – Lekunberri – Betelu – Leitza

“Betidanik”

- ☎ 948 19 70 70
- 🐦 @Grupolrache
- 📘 Grupolrache
- 🌐 www.tanatoriosirache.es

Herri Kirol Jokoak: etzi 4. jarduna Berriozarren

HERRI KIROLAK Igandean jokatu da Nafarroako Kirol Jokoen 4. jardunaldia, goizeko 10:30ean, Berriozarren. Andra Mari ikastolak saria jaso du hain zuzen ere txapelketa honetan herri kirolean inklusioa lantzeagatik

Nafar Kirol Jokoen 3. jardunaldia aurreko igandean jokatu zen, Erratzun. Txapelketa honetan 4 jardunaldi jokatu dira eta, hain zuzen ere, igandean, goizeko 10:30ean jokatu da azken jardunaldia, Berriozarren. Ondotik, maila bakoitzeko lau talde onenak Altsasun apirilaren 14an jokatu den final handirako sailkatuko dira.

Erratzun jokatu da 3. jardunaldian proba konbinatueta Etxarri Andra Mari ikastolako taldeak izan ziren onenak. Kimuetan 20 talde aritu ziren eta Andra Mari 4 gailendu zen (6:48), Andra Mari 6 taldearen aurretik (6:51). Andra Mari 7.7.a sailkatu zen (7:11), Andra Mari 59.a (7:12), Andra Mari 1 10.a (7:13), Barga-gain 14.a (7:21), Andra Mari 3 15.a (7:26), Intsusburu 16.a (7:32), Gainsol 17.a (7:34) eta Andra Mari 2 20.a (8:06). Haurren mailan 10 taldeen artean Andra Mari 3 izan zen azkarrena (9:01). Andra Mari 1 7.a sailkatu zen (10:26) eta An-



Andra Marikoak eta Iñigo Aritzakoak, Erratzun trontzan.

dra Mari 2 10.a (12:25). Bukatzeko, kadeteetan 7 taldek hartu zuten parte eta Andra Mari irabazi zuen (10:11), Iñigo Aritza bigarrenaren aurretik (10:16).

Sokaitirari dagokienez, haurren mailan (480 kg) A multzoan An-

dra Mari 4 izan zen onena (5 puntu), Iñigo Aritzaren aurretik (3,5 puntu). Andra Mari 2 bosgarrena sailkatu zen (1 puntu). Eta B mailan lau talderen artean Txantrea izan zen lehena (3,5 puntu), Andra Mari 3 taldearekin

puntutara berdinduta. Andra Mari 1 hirugarrena sailkatu zen (2 puntu). Bukatzeko, kadeteen mailan (540 kg) 7 talde lehiatu ziren. A multzoan Basarnegi izan zen finena (4 puntu) eta Andra Mari 1 4.a sailkatu zen (puntu 1) eta B multzoan Andra Mari 2 izan zen finena (3 puntu) eta Iñigo Aritza bigarrena (1,5 puntu)

Andra Mari ikastola, herri kirolean inklusioa lantzeagatik saritua

Nafarroako Gazteria eta Kirol Institutuak Kirol Balioei Sariak ematen ditu eta sari horietako bat Etxarri Aranazko Andra Mari ikastolak jaso du, herri kirolean inklusioa lantzeagatik. Kimuen mailako Nafarroako Herri Kirol Jokoen, Andra Mari ikastolako taldeetan Asperger sindromea duen ikasle batek eta Down sindromea duen beste ikasle batek hartzen dute parte, gainontzeko bere ikaskideekin batera. Inklusio hori lantzeagatik saritu dute Andra Mari ikastola. Saria ikastolako herri kiroleko arduradun Mikel Senarrek jaso zuen, aurreko ostiralean, Iruñean.

Sortzen festa girotzeko herri kirolak Uhartan eta Etxarrin

Sakanako herri eskolek maiztaren 18an Sortzen festa antolatuko dute Altsasun. Festa sustatzeko herri kirol jardunaldiak egiten dituzte bihar, larunbatean, 11:00etan Uhartan Arakilen eta 17:00etan Etxarri Aranatzan.

IRRIKAKETA Ioseba Fernandez Antoniutti pista probatzen

Iruñeako Antoniutti pistan asfalto berria jarri dute, eta zola hori nola geratu den probatzeko Ioseba Fernandez irristalariak pista berriari lehendabiziko bueltak eman zizkion, obrako arduradunak alboan zituela. "Xehetasun txiki batzuk badaude, hobetu daitezkeenak, baina pista ongi dago. Bi bihurgunak eraldatu dituzte eta nik uste dut horrek mesede egingo diola txapelketek eskatzen duten erritmo altuari" azaldu zuen iturmen-diarrak. Abuztuaren 25etik irailaren 1era bitartean Europako Irriaketa Txapelketak jokatu dira Iruñean, baina lehen Bartzelonako World Roller Games txapelketan ariko da Fernandez.

Udako futbol campusa: neskak Altsasun eta mutilak Uhartan

FUTBOLA Sakanako Mankomunitateak lehenengoz emakumeendako futbol campusa antolatu du

Aurreko astean Sakanako Mankomunitateak udarako antolatutako kirol eskaintza eta campusen berri eman zuen: triatlota, errugbia, surfa eta futbola. Futbol campusean aldaketak izango dira aurten, lehenengoz emakumeendako futbol campusa izango baita.

Mutilen futbol campusa Uhartan Arakilgo futbol zelaietan izanen da aurten. Lehen txanda uztailearen 1etik 6ra izanen da eta bertan 2007an, 2008an eta 2009an jaiotako mutilak ariko dira. Bigarren txandan, uztailearen 8tik

13ra, 2004an, 2005ean eta 2006an jaiotakoak trebatuko dira. Goizeko 9:30etik 14:00etara. Iokin Lobo Yeregui monitorearen gidaritzapean futboleko murgilduko dira, teoria eta praktika uztartuz. Bestalde, Anoeta futbol zelaira irteera egingo dute, museoa eta instalazioak ezagutzera.

Emakumezkoen futbol campusa Altsasuko Dantzalekuk hartuko du. Mutilekoetan bezala, bi txanda izango dira, data berdinetan: lehen txanda uztailearen 1etik 6ra izanen da eta bertan 2007an, 2008an eta 2009an jaiota-

ko neskak ariko dira. Eta bigarren txandan, uztailearen 8tik 13ra, 2004an, 2005ean eta 2006an jaiotakoak trebatuko dira, goizeko 9:30etik 14:00etara. Kasu honetan monitoreak Maalen Beraza Etxarri izanen da eta, mutilek bezala, Anoetara irteera eta txangoa egiten dute.

Izena ematea zabalik

Aipatu campusetan izena ematea Sakanako Mankomunitateko Kirol Zerbitzuan (948 464 866, kirolak@sakana-mank.eus, www.sakana-mank.eus) egin behar da. Mank-eko kontu zenbakia: ES 453035 0116 93 1160003328 (Euskadiko Kutxa). Prezioa: 45 euro (futbol campusa eta Anoetara irteera). Ordaintzerakoan paritatearen izen abizenak eta aukeratutako campusa zehaztu beharko da agirian.

FUTBOL PREFERENTEA

25. JARDUNALDIKO EMAITZA
Aibares - Etxarri Aranatz **2-0**

SAILKAPENA

PREFERENTEKO 1. MULTZOA

1	Burlades	48
12	Etxarri Aranatz	29

HURRENGO JARDUNALDIA

LARUNBATEAN
17:00 Etxarri - Artajones (*San Donato*)

Etxarrik Artajones hartuko du

Etxarrik eta Aibares taldeek ez zuten partida ona egin. Oibarko taldea atsedenaldira baino lehen aurreratu egin zen. Bigarren zatian Aibaresek bigarren gola sartu zuen, eta nahiz eta Etxarri Aranatz behin eta berriz saiatu, baloia ez zen sartu. Bihar Artajones hartuko dute.

FUTBOL ERREGIONALA

1. JARDUNALDIKO EMAITZAK
Lagun Artea - Iruñxiki **2-3**
Universidad de Navarra - Altsasu **1-0**

SAILKAPENA

IGOERA FASEKO A. MULTZOA

1	Ardoi	10
3	Lagun Artea	6
8	Altsasu	3

HURRENGO JARDUNALDIA

LARUNBATEAN
16:00 Lagunak - Altsasu (*Barañain*)

IGANDEAN

10:00 Ardoi - Lagun Artea (*Zizur*)

Gure taldeek galdu egin zuten

Davila eta Zubiriari esker 2 eta 1 aurreratu zen Lagun Artea, baina berdintzea eta irabaztea lortu zuen Iruñxiki. Iruñean, 4. minuturako aurreratu zen Universidad de Navarra; Altsasu saiatu zen, baina ezin izan zuen.

EMAKUM. ERREGIONALA

27. JARDUNALDIKO EMAITZAK
Mulier - Altsasu **6-0**

SAILKAPENA

EMAK. ERREGIONALEKO 1. MULTZOA

1	Osasuna Fundazioa	74
13	Altsasu	22

HURRENGO JARDUNALDIA

LARUNBATEAN
17:00 Altsasu - Lagunak (*Dantzaleku*)

Altsasu Lagunak taldearen kontra

Erregional mailako emakumezkoetan, Altsasuk Mulier izan zuen aurkari eta iruindarrak altsasuaren gainetik pasa ziren, 6 eta 0 irabazita. Bihar Altsasuk sailkapenean hirugarrena den Lagunak taldea hartuko du, eta beste partida zail bat espero da Dantzalekun.

Barça Lassa liderra hartuko du Osasuna Magna Xotak

ARETO FUTBOLA Bihar, larunbatean, 18:00etan, Anaitasunan jokatu da partida erabakigarria

Igandean lehen mailako areto futboleko derbia jokatu zuten Osasuna Magna Xotak eta Aspil-Vidal Ribera Navarrak. Printzipioz hirugarren postuan zegoen Osasuna Magna zen derbia irabazteko hautagai nagusia, baina hasieratik Erriberakoek ederki estutu zuten talde irurtzundarra eta jokoan zeuden hiru puntuak lortu zituzten, Imanol Arregiren mutilei 4 eta 2 irabazi eta gero. Tuterako taldea nagusi izan zela onartu zuen Imanol Arregik eta bere taldea gaizki aritu zela, “desordenatua, defentsa intentsitate gutxiarekin. Horrela zaudenean galtzea da arruntena. Berdintzea ere ez dugu merezi izan” aitortu zuen.

Laugarren postura jaitsi

Barça Lassa da lehen mailako liderra (61 puntu) eta hirugarren postutik laugarren postura jaitsi da Osasuna Magna (52 puntu). Hain zuzen ere, Barça liderra hartuko du talde berdeak bihar, larunbatean, Anaitasunan, (18:00). Barçak lehen postua du jokoan eta Osasuna Magnak, aldiz, 3. postua berreskuratzea. Beraz, tentsio handiko partida aurreikusten da eta jokoan dauden 3 puntuak urrezkoak dira bi taldeendako.

SASKIBALOA CBASK vs San Ignacio, fase berrian

Autonomia Arteko 2. mailako lehen fasea despeditu eta gero, asteburu honetan 2. faseari ekingo zaio. Altsasuko CBASK taldea 1 eta 8 postuen arteko ligaxkan lehiatuko da, sei jardunalditara. Lehen jardunaldian bihar, larunbatean, Iruñean ariko da CBASK, San Ignacio taldearen kontra, 20:00etan, San Ignacio kiroldegian jokatu den partidaren.



Jose Javier Zabaletak bi final jokatu ditu eta biak irabazi. Ea igandean hirugarren txapela lortzen duen. ASPE

Zabaletak hirugarren txapela jantzi nahi du

PILOTA Irribarriak eta Zabaletak Binakako Txapelketako finala jokatu dute igandean Elezkanoren eta Rezustaren kontra (Bizkaia, 17:00, ETB1). Finala jokatu eta gero, irabazi edo galdu, Zabaleta eta gertukoak afaltzera bilduko dira Etxarrenen

Binakako Pilota Txapelketarako final handirako orduak baino ez dira gelditzen. Azaroaren 23an Amezketan hasi zen txapelketa igandean erabakiko da Bilbon. Sarrera guztiak salduak, primerako giroa espero da, final handi guztietan bezala. Txapelketako bi bikote erregularrenekin lortu dute txartela, Elezkanoren II.a-Resustak eta Irribarria-Zabaletak. Jotzaile handiak, egungo atzelari onenetakoen arteko lehia eta txispa duten aurrelarien arteko final estua da espero dena. Finalerdietan Irribarriak eta Zabaletak Elezkanoren II.a eta Rezusta mendean hartu zituztenez (22 eta 12), katedrak lehenak fabrorito jotzen ditu eta dirua euren alde aterako da nabarmen. Dena den, etzi ikusiko da nork jantzi-ko duen txapela.

“Bi txapel ditut baina gehiago nahi ditut”

Jose Javier Zabaletak Binakako bi txapel ditu. Aurreko urtean, 2018an, Elezkanori eta Rezusta-

ri 22 eta 9 irabazi eta gero Joseba Ezkurdiarekin lortutakoari, 2013an Irujorekin lortu zuena gehitu behar zaio, Berasaluze eta Albisuren kontrako partidaren 6 eta 4 irabazten zihozazela Berasaluze lesionatu zen final gogoangarri hartakoa. Bi final jokatu ditu eta biak irabazi. Eta orain, jakina, hirugarren txapela jantzi nahi du Etxarrenen atzelariak. “Etxean ditut bi txapelak, egunero ikusten ditut eta gehiago nahi ditut. Irabaztera aterako gara, ea egun ona dugun eta lortzen dugun” azaldu du Zabaletak.

Etxarrenen sasoian dago, akaso bere momenturik onenean. “Gustura sentitzen naiz, fisiko aldetik, eskutatik... Frontoian jokoarekin boladak izaten dira, baina azkenaldi honetan nahiko konstante ari naiz izaten eta hori ona da. Lesioek ere errespetatu naute. Erregularragoa ari naiz izaten, baina hobetzen jarraitu nahi dut” aipatu zion Guaixeri. Perfekzionista da Zabaleta, eta beti hobetzeko aukera duela pen-

tsatzen du. Atzean gelditu dira duela hiru urte orkatilan izandako lesioa eta eskuan izan zuen garatxo edo berrugeta. Orduan Iñaki Barbajero prestatzailearekin hasi zen lanean. Harekin eta Aspeko Jokin Etxanizekin batera, egunero entrenatzen du, eta errutina hori ezinbestekoa ikusten du. Lesioen ondoren, lehiakorra bilakatu da. “Urrutiago iristeko grina piztu dit. Partidak eta txapelketak lortzeko gosea dut” adierazi du. Badaki sasoi onak aprobetxatu behar direla eta horretan dago.

Rezustaren laugarren finala jarraian

Zabaletak Rezusta izanen du aurrean, arerio gogorra. Azken

IRABAZI EDO GALDU, ZABALETAK ETA GERTUKOEN ETXARRENEN AFALDUKO DUTE ETZI

lau Binakako txapelketan finalista izan da Bergarako pilotaria, eta txapel bat dauka, 2017an Irribarriarekin batera lortutakoa, Bengoetxeari eta Larunberri 22 eta 14 irabazi eta gero. Beraz, bigarren txapela jantzi nahiko du Bergarako atzelari ezkerak. “Ezker esku ikaragarria du eta fisiko bikaina, pilotara jokatze-ko baldintza bikainak. Egun, atzelari konplikatu eta deserosoetako bat da, Ladis Galarzarekin batera, pilotari sekulako abiadura ematen diolako. Kantxa asko estaltzen du” adierazi du Zabaletak Rezustari buruz.

Baina Etxarrenen ez da gutxiago. Frontoian duen berezko elegantziari jotze ikaragarria gehitu behar zaio; egungo jotzaile handienetakoa da. “Izugarri jokatu du. Egungo atzelaririk onena ez bada... Pilota gutxi galtzen du eta, akatsak egiten ere, partidak irabazten ditu. Kantxa asko estaltzen ari da eta ezin dut gehiago eskatu. Berarekin disfrutatzen ari naiz” esan du Irribarriak Zabaletaz.

Irribarriarekin biko ona sortu du Zabaletak. “Pilotari indartsua da, jotzaile handia. Egun ona ez duzunean zu laguntzera atzera etortzeko kapaza da. Une bikainean dago. Tarte handiak egiten ari da eta errematean ongi dabil” azaldu du Etxarrenen Arama-koaz.

Faboritoak jotzen dituzte, baina final bat irabaztea ez da inoiz erraza. “Elezkano eta Rezusta une oso onean daude, eta guk gure maila ematen ez badugu ez diegu irabaziko. 10 partidetatik 9tan ematen dute euren maila, eta finalean ere emango dute. Oso ongi ulertzen dute elkar, zaila da eurak irabaztea” dio Etxarrenen. Jakina da Elezkanok tanto batzuen abantaila lortzen duenean gora egiten duela, eta hori ekiditen saiatu behar-ko dira Irribarria eta Zabaleta. Argi dute partida oso gogorra izango dela.

Arakildarrak Zabaletarekin

Etxarrenen atzelariak senitar-tekoak, herritarrek eta lagunak izango ditu alboan igandean. Asko finalera joango dira, eta bertara joateko autobusa antolatuko dute arakildarrek, igandean 12:30ean abiatuko dena. Finala irabazi edo galdu, argi dute finala jokatzearen lorpena ospatuko dutela. Etxarrenen Iratzar jate-txean bilduko dira afaltzera.

Zapatilak jantzi eta Ziordiko herri lasterketara

ATLETISMOA Bihar, apirilaren 6an jokatu da VI. Ziordiko Herri Kros Solidarioa. 17:00etan hurren lasterketak jokatu dira, 17:30ean 2 km-ko proba solidarioa eta 18:00etan proba nagusia (6,8 km)

Larunbatean jokatu da VI. Ziordiko Herri Kros Solidarioa. Lehenik eta behin kategoria txikikoen probak jokatu dira, 17:00etatik aurrera. Ondoren, eta aurtengo nobedade nagusienetakoa izango dena, 2 kilometroko proba herrikoa abiatu da, 17:30ean eta, bukatzeko, 18:00etan, proba nagusiaren txanda izango da. Herrian barna prestatutako zirkuituari 3 itzuli eman beharko dizkiote korrikalariak, 6,8 km-ko proba osatzeko.

Ziordiko herri lasterketarekin, kirola eta atletismoa sustatzeaz gain, gizarte ekimenei tokia egiten zaie. Aurten, aurreko urteetan bezala, Dravet funda-



Aurreko urtean 400 partaide inguru izan ziren guztira.

zioa eta Paris 365 jantoki soziala lagunduko dira, eta behar bereziak dituen Markel mutil gipuzkoarraren alde ere lan egingo da Ziordian. Xabi Luna suhiltzaileak “Y os lo cuento” egitasmoarekin pobreziarekin bukatzeko lan egiten duen Inakuwa egitasmora bideratuko du jasotakoa.

Izena ematearen truke, janaria eta txartelak

Kategoria txikiko lasterketetan parte hartzeko korrikalariak gutxienez 2 kg elikagai eraman beharko dituzte, Paris 365 jantoki sozialera bideratuko direnak, eta Markelen aldeko zozketarako gutxienez txartel bat erosi beharko dute (txartel bakoitza euro 1). Aldiz, lasterketa herrikoian parte hartzeko 4 kg elikagai eraman beharko dira eta Markelen aldeko saskirako txartel bat erosi beharko da. Eta berdin helduen proban parte hartzeko. Halaber, probak gauzatzen diren bitartean erabilitako errotulagailu eta boligrafoak jasoko dira, Dravet fundazioaren alde.

Korrikalariak 15:30etik aurrera eman ahalko dute izena Ziordiko Errekakartea elkartean.

Aurretik izena ematen duten lehen 150 pertonek produktu lotea eta opari sorpresa jasoko dute opari. Sari ematea 19:00etan izanen da elkartean eta irabazleen sarietaz gain, babesleen produktuen zozketa egingo da parte-hartzaileen artean. Jakina, guztiendako auzate ederra egonen da.

Aurreko urtean, kategoria guztiak kontuan hartuta 400 korrikalari inguruk parte hartu zuten Ziordiko Herri Krosean. Proba nagusian Javier Nagore eta Izaskun Beunza gailendu ziren. Aurten, dagoeneko 161 pertsona daude izena emanda proba nagusian, eta 30 baino gehiago martxan.

Sakanako Kopa mustuko du

Ziordiko Herri Krosak Sakanako Mankomunitateak antolatutako XVI. Atletismo Kopa-Lasa Kiro-lak Saria mustuko du. Bost lasterketek puntuatuko dute aurtengo Sakanako Kopan: Ziordikoak, XVI. Aitzkozar Herri Krosak Ergoienako XVI. Birak, Sakanako XIX. Herri Lasterketak eta Barricarteren XXXIX. Oroime-neZKo Oinezko Lasterketak.

Etzi emakumeen Lilasterketa Altsasun

ATLETISMOA Igandean, 12:00etan, Altsasuko Foru plazak emakumeendako Altsasuko VI. Lilasterketa hartuko du. Bertan aritzera animatu dituzte adin guztietako Sakanako emakumeak, ibilbidea korrikan, oinez, bizikletan... edo nahi den moduan osatzeko

Badirudi urruti gelditzen dela martxoaren 8a, Emakumeen Nazioarteko Eguna. Egun horren inguruan makina bat ekitaldi antolatzen dira, eta horietako bat igandean, apirilaren 7an izanen da, Altsasuko VI. Lilasterketa, hain zuzen.

Adin guztietako emakumeendako

Lilasterketa emakume eta neskendako lasterketa ez lehiakorra da. Altsasuko Udaleko Emakumeen Bilguneak antolatzen du, Dantzaleku Sakana klubaren laguntzarekin. Donostiako Lila-toi arrakastatsua Sakanara ekartzeko antolatu zen aipatu ekime-



Lilasterketen aritzera animatu dute.

na eta aurten 6. urtez jarraian antolatuko da. Lasterketarekin emakumeak protagonistak direla erakutsi nahi da.

Igandean 12:00etan

Lilasterketa igandean abiatuko da Altsasuko Foru plazatik, 12:00etan. Adin guztietako emakumeak bertan parte-hartzera animatu dituzte, izan ere, korrika, oinez, patinetan, aulkitxoetan, gurpildun aulkian... norberak ahal duen moduan osatuko du ibilbidea, helburua proba ez lehiakor honetan emakumeen parte-hartzea sustatzea delako. Horrela, antolakuntzak 0 eta 99 urte bitarteko emakume guztiei

egin die bertan parte hartzeko deia.

Probak Altsasuko San Silbestreren ibilbide antzekoa izango du, 4 km ingurukoa. Oinezkoek itzuli bat emango diote zirkuituari (2 km inguru), korrikalariak 2 itzuli (4 km inguru) eta irris-talariak eta txirringulak 3 itzuli (6 km inguru). Bukaeran parte-hartzaileendako hamaiketakoa izanen da.

Izena ematea, dohainik eta zabalik

Izena ematea dohainik da, aurretik Emakumeen Bilgunean (948 564 823 edo berdintasuna@altsasu.net) edo bestela, egunean bertan, 11:30etik aurrera Gure Etxean eman daiteke izena.

Aurreko urtean eguraldia oso kaxkarra izan zen, baina hala ere emakume mordoxka animatu zen Lilasterketan aritzera. Bukaeran, antolakuntzak, Emakumeen Bilguneak, Sociedad Deportiva Alsasua omendu zuen, besteak beste emakumezkoen futbola sustatzeko klubak egiten duen lana eskertzeko. Egun, Altsasuk bi emakumezko talde ditu eta hirugarrena sortu nahi luke.



Maite Beregaña, erdian. D. NOTICIAS

ATLETISMOA Maite Beregaña txapelduna Etxaurin

Igandean jokatu zen 40. Etxauriko Krosa. Proba labur baino gogorra da, 7 kilometrotan Etxauriko portua igo behar baita. 150 korrikalariaren artean gizonetakoan Cristobal Galerak irabazi zuen eta emakumezkoetan, proban debutatu zuen Maite Beregaña uhartearrak. “Lagun batek bertan aritzera animatu nau eta oso proba ederra iruditu zait” adierazi zuen bukaeran.

Euskal Herriko Itzulia Sakanatik pasako da

TXIRRINDULARITZA

Asteartean Itzuliko 2. etapa Lizarrustitik sartuko da Sakanara, 14:45ean

Munduko txirrindulari onenak gertu ikusteko aukera izango dugu. Izan ere, Euskal Herriko Itzulia Sakanatik pasako da asteartean. Itzuliko 2. etapa Zumarragan hasiko da, 13:45ean eta Gorraizen despidituko da, 149,5 km geroago. 3. mailako Lizarrustiko portua gainditu eta gero iritsiko da tropela Sakanara, 14:45 inguruan, eta Arbizura 14:56 aldera. Handik Sakanako herrietan barna Irurtzuneraino helduko dira (15:25), aurrera segi eta Gorraizera heltzeko (17:15 inguruan). Etapan bi portu gainditu beharko dituzte korrikalariak, Olaberria gaina eta Lizarrusti, biak 3. mailakoak.

Gorka Izagirre

Euskal Herriko Itzulian 169 txirrindulari ariko dira guztira, 23 taldetan banatuta. Luxuzko parte-hartzea izanen da bertan: Mikel Landa eta Nairo Quintana (Movistar Team), iazko Tourreko irabazle Geraint Thomas (Sky), Adam Yates (Mitchelton-Scott), Izagirre anaiak (Astana), Rohan Dennis (Bahrain Merida), Julian Alaphilippe (Deceuninck-Quick Step) eta puntako txirrindulariak egongo dira tartean. Murias-Euskadi eta Rural Kutxako txirrindulariak baita ere.



Mendizale talde bat aurreko urteko Hiru Mendi Zerrak martxan, Ziordira iristen.

Bihar, Altsasun, hiru mendizerrak lotzera

MENDIA Larunbatean, apirilaren 6an, goizeko 7:00etan, abiatuko da Altsasuko Mendigoizaleak taldeak antolatutako Hiru Mendi Zerrak mendi zeharkaldia. Mendizaleek hiru ibilbideren artean aukera dezakete

Urbasa-Andia, Altzania eta Aralar mendizerrak batzea, hori da Altsasuko Mendigoizaleak taldeak larunbaterako proposatzen diguna. Hainbat entitate eta babesleren laguntzarekin antolatutako XII. Hiru Mendizerrak mendi martxaren helburua Altsasu inguruko hiru mendizerra horiek lotzea da, eta ingurune bikain horietatik barna ibiliko dira aipatu ibilaldi ez lehiakorren parte hartuko duten mendizaleak.

Bihar, larunbatean, irailaren 6an abiatuko dira, goizeko 7:00etan, Gure Etxeatik, eta hiru ibilbide izango dituzte aukeran. Altsasuko proba ez lehiakor honen ibilbide luzea Nafarroako Iraupen Luzeko Mendi Ibilaldien

XII. Txapelketako bigarren proba baliagarria izango da, eta, horretaz gain, Euskal Herriko Ibilbide Luzeen Zirkuiturako puntuagarria den bigarren proba da.

Luzea, laburra eta alternatiboa

Bi ibilbide nagusiren artean hautatu ahal izango dute mendizaleek: Hiru Mendi Zerrak, ohiko ibilbidea (48 km, 2.700 m desnibel metatua) edo ibilbide laburra (26 km, 1.200 m desnibel metatua). Ibilbide laburra gutxi gorabehera 7-8 orduko lana eskatzen du eta martxa handiaren estimazioa 11 orduetik gorakoa da. Bi ibilbideak Altsasuko Gure Etxean hasiko dira, 7:00etan.

Hasieran, mendizale guztiak Urdiainerajoko dute. Urdiaindik Urbasa-Andiara igoko dira, Portuazpitik, eta aipatu parke naturala zeharkatuko dute, Bargaingo gurutzera helduz. Portutik barna, Gainsolera helduta, Ziordia herriraino jaitsiko dira, bertako hornidura gunean atsendena hartzeko. Segidan, ibilbide motza aukeratzen dutenak partzelarietatik barna eta Cementos fabrikako atzealdetik Altsasura ailegatuko dira, eta, aldiz, ibilbide luzea hautatzen dutenak Kipular igoko dute, gero Orobeiko antzinako harrobitik jaisteko. Ondoren, Sorozarreta jaitsi eta segidan Balankaleku eta Intxusburu igoko dituzte. Handik jai-

tsiko dira, Sarabetik, eta San Pedroitik eta Basoixitik barna Altsasuko Gure Etxera helduko dira.

Horiek dira bi ibilbide nagusiak, baina badago ibilbide alternatibo bat. Izan ere, behin Sorozarretara iritsi ondoren, ibilbide luzearekin jarraitu nahi ez duten mendizaleak daude, Ibarreatik barna Altsasura itzultzen direnak. Mendizale horiei begira, ibilbide alternatibo bat prestatu du antolakuntzak, Ibarreatik beharrean Dorretxikitik bueltatzea eman eta Altsasura iristen dena. Kasu honetan, 30 km inguru osatzen dituzte mendizaleek, eta 1500 metroko desnibel metatuta gainditzen dute.

5 hornidura eta kontrol gune

Ibilbidean barna 5 hornidura eta kontrol gune egongo dira: Urbasan, Ziordian, Sorozarretan, Saraben eta Gure Etxean. Zer jan eta zer edan ez da faltako; famatuak dira eskaintzen diren hamaiketakoak. Bestalde, ibilbidea markatzeko lanak errespetatzeko deia egin dute antolatzaleek.

Aurreko urtean 380 mendizale

Aurreko urtean eguraldiak ez zuen lagundu baina hala ere 380 mendizalek hartu zuten parte Altsasuko Mendigoizaleak taldeak antolatutako proba ez lehiakorrean.

Aurretik izena ematea www.mendizmendi.com edo www.zirkuitua.com web guneetan egin beharrekoa zen, baina tokia egonez gero antolakuntzak gehienez 700 parte-hartzaile onartzen ditubertan aritzea eska daiteke egunean bertan. Prezioa: 15 euro. Dortsalak ostiral arratsaldean edo larunbat goizean jaso ahal izango dira, Gure Etxean.

Jose Luis Beraza bikain Huescako Riglosen

MENDI LASTERKETAK Trail Mallos de Rigloseko 35 km-ko proban hirugarrena sailkatu zen uhartearra

Jose Luis Beraza beterranoak sasoi betean dagoela erakutsi du beste behin. Asteburuan Huescako Trail Mallos de Riglos proba gogorrean aritu zen, 35 km eta 2.200 metroko desnibel positiboa duen trailean. 160 korrika-

larik osatu zuten proba eta Unai Dorronsoro gailendu zen (3:16:38), Sakana Bizirik taldean dabilen Ander Ericeren aurretik (3:17:56). Hirugarrena Jose Luis Beraza izan zen (3:21:15), eta podiuma lortzeaz gain, lasterketako lehen

beteranoa izan zen Beraza. Etxarrengo Gorka Santestebanek ere lasterketa bikaina egin zuen eta seigarrena sartu zen (3:30:44).

Maiza 25.a Arantzan

Igandean III. Arantzako Mendi Lasterketa jokatu zen (20 km). Eguraldia lagun, Berako Joseba Larralde (1:38:44) eta Ustarrozeko Laura Sola (2:01:40) gailendu ziren proba despiditu zuten 252 korrikalarien artean. Joxeja Maiza etxarriarra oso fin ibili zen eta 25.a iritsi zen helmugara



Beraza Trail Mallos de Riglosen. UTZITAKOIA

(1:57:47). Mikel San Martin 168.a sailkatu zen (2:32:38), Ruben Cantero 179.a (2:34:50), Erkuden San Martin 185.a, probako 8. emakume onena (2:36:46) eta Francisco Jose Juango 196.a (2:39:44).

Katarain txapeldun Kolazinon

Martxoaren 24an Kolazinoko Mendi Eguna jokatu zen (24 km eta 1.500 m desnibel positiboa). Beñat Katarain lakuntzarrak irabazi zuen (2:07:00). 2 minutu eta 41 segundo atera zizkion Ander Barrenetxeari eta Becerrari.



Igor Arrieta Galtzadarren Klasikoan. ARTXIBOA

Igor Arrieta hamargarrena juniorren Gent-Wevelgem proban

TXIRRINDULARITZA Txirrindulari uharterra Espainiako selekzioarekin aritu zen galtzadarren klasiko ezagunean

Flandriako Klasikoetako bat da Gent-Wevelgem, galtzadarren proba ezagunenetako bat. Asteburuan juniorren eta 23 urtez azpiko afizionatuen mailako lasterketa jokatu zen eta bertan Sakana Group-Aralar taldeko Igor Arrieta Lizarraga aritu zen, Espainiako juniorren mailako selekzioarekin.

Erorikoak eta arazo mekaniakoak saihestea, hori da klasiko hauetako lehendabiziko egin beharra. Eta hori lortzearekin ez dira arazoak bukatzen, lasterketa oso gogor eta exigenteak baitira galtzadarrietako klasiakoak. Junior mailan Quinn Simmons estatubatuarra lortu zuen garaipena, Lewis Askey eta Samuel Watson britainiarren aurretik. 36 segundora taldetxo bat sartu zen eta bertan zegoen Igor Arrieta. Uharterra 10.a sailkatu zen, lasterketa bikaina egin eta gero. Bere taldekide Rodriguez eta Tercero ere talde horretan zeuden. "Balorazioa oso ona da, Arrietak lortutako postuarengatik bereziki. Raul Garcia eta Ayusoren erorikoengatik izango ez balitz, aurreko taldean bost txirrindulari izan genitzake" azaldu du Francisco Cerezo Espainiako selekzionatzaileak.

Afizionatuak: Aramendia 14.a Gorlako Igoeran

Igandean Gorla Igoera jokatu zen, afizionatuen mailan. Rural Kutxa-Seguros RGA taldeko Juan Fernando Calle kolonbiarra izan zen azkarrena, helmugara baka-

rrik heldu eta gero (2:56:12). Goierriko TB-Laboral Kutxako Eneko Aramendia 14.a sailkatu zen, 2:44ra; Rural Kutxa-Seguros RGA taldeko Josu Etxeberria iturmendierra 32.a, 6:33ra; eta Goierriko TB-Laboral Kutxako Ailetz Lasa 72.a, 14:50ra.

Datorrena

Juniorrek larunbatean lasterketa dute Beran, 11:00etan (82,4 km). Hurrengo egunean, igandean, kadeteak eta juniorrak Tafallan ariko dira, 11:30ean, El Caserio Valsay Trofeoan (53 km). Afizionatuek, aldiz, igandean Udaberri Saria jokatu dute Amorebietan, 10:00etan (93 km), Lehendakari Txapelketarako baliagarria den proba.

Etxeberriarrak eta Aznar Espainiako Pista Kopan

Asteburuan despeditu zen Espainiako Pista Txirrindularitzako Kopa, Valentzian. Aurretik Mallorcan eta Galapagarren jokatu ziren saioak. Kadeteen mailan Balearko Marc Terrasa gailendu zen eta Nafarroako selekzioarekin aritu zen Martzel Etxeberria iturmendierra 15.a sailkatu zen. Junior mailan, aldiz, Euskadiko Federazioko Markel Rodriguez gailendu zen eta Nafarroarekin lehiatu zen Burunda klubekoa den Unai Aznar 47.a sailkatu zen. Eta, bukatzeko, open mailan Leongo selekzioko Noel Martin izan zen finena eta Nafarroako selekzioko Josu Etxeberria iturmendierra 17.a sailkatu zen.

Osoro eta Idiazabal azkarrenak Arbizun

DUATLOIA 22. Arbizuko Duatloia laburragoa izan zen herriko obregatik eta 84 duatleten artean Pello Osoro eta Uxua Idiazabal gailendu ziren. Sergio Garcia de Eulate laugarrena izan zen helmugan

Arbizuko Duatloia da Nafarroako duatloien artean proba beterranoa. Aurten 22. edizioa bete zuen eta berezia izan zen, antolakuntzak, Arbizuko Udalak eta herriko taldeek, lehenengoz ibilbidean aldaketa nabariak egin behar izan zituztelako. Arbizuko Kale Nagusia berritzeko lanak bete betean daudenez hartu behar izan zen erabaki hori, eta, horregatik, aurten Arbizuko proba laburragoa izan da. Irteera plazan izan beharrean Fernando Urkia kalean, autobus geltoki ondoan egin behar izan zen eta boxak ez ziren plazan egon, kiroldegiko aparkalekuan baizik. Horregatik, antolakuntzak 115 duatleten muga jarri zuen aurtengo ediziorako. Horretaz gain, eta obregatik, aurten ez zituzten kategoria txikiko probak antolatu, Nafar Kirol Jolasetarako baliagarriak direnak.

Gizonen artean lehia estua

Eguraldia lagun, 84 duatletek hartu zuten irteera larunbat arratsaldean, Arbizuko autobus geltoki parean. Hasieran, 5,6 km egin behar zituzten korrika Arbizun edizio honetarako propio prestatutako zirkuituan. Fernando Urkia kaletik San Juan ermitara jo zuten, autobide goitik pasata Lizarratik datorren errepideraino iritsi ziren eta handik, Kale Nagusira jaitsi ziren, plazara iritsi aurretik eskuineko kalea hartuz. Zubia gurutzatu ondoren Iruñeko Etorbidean ezkerrean egin zuten, Fernando Urkia kalera heltzeko. Zirkuitu honi bi buelta eman zizkioten eta segmentu hau oso lehiatua izan zen, Pello Osorok (Delteco Eibar) eta Jon Trigueros (Yepa TK) borroka oso estua izan baitzuten. Ondoren, boxetan bizikleta hartu eta 24 km-ko buelta egin behar izan zituzten duatletek, tartean Lizarragako Katea gaintuz. Bizikletan Osoro nagusi izan zen eta Delteco Eibar



Arbizuko Duatloia hasiera herritik.

ARBIZUKO HERRI LANENGATIK IBILBIDEA LABURTU BEHAR IZAN ZUEN ANTOLAKUNTZAK

taldekoak alde ederra atera zion Triguerosi. Iñaki Isasi duatleta oso ongi ibili zen txirrindularitza segmentuan: Triguero aurreratu zuen, ez, ordea, Osoro.

Bukaeran, korrikako azkeneko segmentuak -2,6 km- proba erabaki zuen eta Osoro gailendu zen (1:13:04), Jon Triguerosen (1:13:31) eta Iñaki Isasiren aurretik (1:13:21). Sakana Triatloi Taldeko Sergio Garcia de Eulate podiuma zapatzean egon zen, laugarrena iritsi baitzen helmugara (1:13:55). Nabarmenezkoa da lan oso txukuna egin zutela duatleta sakandarrek.

Emakumezkoetan Idiazabal nagusi

Emakumezkoetan Uxua Idiazabal (San Juan) dominatu zuen hasieratik Arbizuko proba. Lehen partzialan minutu bateko errenta atera zien arerioei. Bizikletan

distantzia ateratzen jarraitu zuen eta, azkenean, helmugara bakar bakarrik iritsi zen (1:32:48), Ane Alava bigarrenari (Universidad de Navarra) 6 minutu pasa ateraz (1:38:16). Eneritz Urrutiak (Antxintxika) osatu zuen podiuma (1:38:52).

Asteburuan Nafarroako Taldekakoa

Asteburuan Nafarroako taldekako Duatloi Txapelketa jokatu da Eguesibarren eta bertan arituko dira Sakana Triatloi Taldekoak.

Sakandarrak

Arbizuko Duatloia	
1. Pello Osoro	1:13:04
4. Sergio G. Eulate	1:13:55
7. Mikel Astiz	1:14:37
14. Fco. J. Gomez	1:17:17
16. Iñaki Alvaro	1:17:34
21. Juan Larrea	1:18:20
22. Ivan Sobredo	1:18:20
24. Javier Borrega	1:18:45
27. J. Carlos Gomez	1:19:34
32. Aritz Munarriz	1:20:42
55. J. Ignacio Iturrioz	1:28:34
72. Luismi Chaves	1:39:46



Xabi Bandini abeslaria. INIGO GIL

"Niretzako gauza polita da kontzertu bat ematea"

Xabi Bandinik kontzertua egingen du gaur Olaztiko kultur etxean Korrika Kulturalaren barruan, 22:30ean

OLATZAGUTIA

Duela pare bat urte Anticontinente taldea Olaztiko kultur etxean egon zen. Anticontinente Kerobiatik sortutako proiektua izan zen. Eta, orain, Xabi Bandini Kerobia eta Anticontinente taldetako kideak bakarlarari moduan diskoa kaleratu du. *Begibakar* deitu dio. Madrilgo 29 metro karratuko pisu batean grabatu du, bera bakarrik. Totem aretoan egindako kontzertuarekin hasi zuen bira Bandinik, eta horrekin *Begibakar* proiektua garatu zen. Olaztiko kultur etxean egonen da gaur, ostirala, 22:30ean, lan berria aurkezten.

Duela bost edo sei hilabete kaleratu zuen Xabi Bandinik *Begibakar* diskoa. Madrilera duela urte eta erdi joan zen eta bertan zuen pisu txikian "estudiotxo txiki bat" prestatu zuen. "Eta hor hasi nintzen pixkanaka gorpuzten joango zen disko bat. Horretan nago orain". Orain diskoa zuzenekoetan defendatzea tokatzen zaiola esan du Bandinik. Hortaz, Alberto Isaba Kerobian egondako baxu-joleak elkarrekin aritzeko animatu zuen Bandini eta bikoteari "lagun berri bat gehitu" zitzaizen: Jon Etxabar musikaria. *Begibakar* diskoaren abestiak ez ezik, Kerobiaren abesti "enblematikoak; esna moldatu dituzte Isabak eta Bandinik, eta zuzenekoan interpretatzen dituzte.

"Pertsona bat sortzen dut eta horren inguruan istorio bat egiten dut disko bakoitzean". Hortaz, *Rose Escargot* eta *Supernova*-ko

pertsonaiak sortu zituen Bandinik. *Begibakar* "deituko diogun" pertsonaiaren istorioa sortu du: "piztiaren eta pertsonaren arteko zerbait da *Begibakar*. Diskoak *Begibakar*ren desagerpena kontatzen du. Itsasontzi batean ikusten dute gero, eta, amaitzeko, espedizio bat egingo du".

Xabi Bandini bakarlarari bezala hasi da orain, Kerobiatik "guztia" duela esan du, "Kerobiatik datorrelako". Hala ere, *Begibakar* disko sotila eta erraza dela dio Bandinik. "Gauza handirik gabe, bateriarik ez dago. Ahotsa dago. Kantu bat ahotsak eta ahotsak kontatzen duen istorioa da". Kontzertuetan azaltzen duen bezala "nahikotasuna" da orain bere hitza; hortaz, disko honetan gauza asko ez dituela gehitu du: "apaingarririk gabe".

Hasieran sortutako guzti hori, "ahaztu dut" eta zuzenekoetan sartu direnean "energia eta dantza" dago. "Ez dakit zenbat *Begibakar* dauden. Baina oso hunkigarria da hau". Izan ere, duela gutxi bere etxean egindako disko batekin hasi zen eta orain "oso ezberdin den gauza batekin" ari dira. Proiektua "kortserik gabe" garatzen ari dela dio. Beraz, zuzenekoak "elektronikoagoa eta dantzarriagoa da". Gainera, gaur Olaztin "proiektio polit batzuekin" lagunduta egonen da. "Niretzako gauza polita da kontzertu bat eskaintzea".

Sakanan musikaren inguruan dagoen mugimendua "mirestu" eta bertan dagoen "sormena" goraiatu du Bandinik.

Txistuaren erritmoan

Txistuaren "ohiko" erreperatorioko abestiak, euskal musikak, berpizkundeko doinuak eta jazz asko entzun zen Burundar txistulariek larunbatean eskaini zuten kontzertuan. Txistulariekin batera metalezko boskotea, bateri jolea, abeslariak, piano-jolea, dantzariak eta abar egon ziren. *Aurrera Altsasu* abestiaren egin duten moldaketa mustu zuten.



Idazle gogokenak

Apirilaren 2an Haur eta Gazte Literaturaren eguna izan zen eta Iñigo Aritza eta Andra Mari ikastoletan JUUL literatura-hauteskundeak egin zituzten. Ikasleek idazle eta ilustratzaile gogokenak aukeratu zituzten haien bozken bidez. Irakurtzeko zaletasuna sustatzeko programaren parte dira hauteskundeak.



BAZTERRETIK


IUNE TRECET OBESO ©

Zure bideoa zentsuratzen denean...

Imajina ezazu zure talde kuttunenaren kontzertuan zaudela, zure lagunekin bideo bat grabatzen duzula abesti politena abesten, taldea atzean fondoan duzula eta Internetera igotzen saiatzen zarenean... bideoa zentsuratua izan da. Hori gerta daiteke hemendik aurrera egile eskubideen inguruko zuzentarau berria onartu denetik.

Duela hilabete batzuk aurkeztu nizuen zuzentarau hau, copyrightaren lege bezala ezagutzen dena. Momentu horretan laguntza eske etorri nintzaizuen Europar Parlamentuko diputatuei zuzentarauaren kontra bozka zezaten eskatzeko. Errealitate bihurtu da, martxoaren 26az geroztik legea indarrean dago, nahiz eta herrialdeek araua martxan jartzeko bi urteko epea izan.

Egileak "babestuko" dituen legearen 17. artikulua, aurretik 13.a zenak, legea betetzeko iragazkiak plataforma handien esku uzten ditu, Youtube, Facebook, Instagram edo dena delakoak. Hauek iragazki automatikoak sortu beharko dituzte copyright-a duen edozein gauza zentsura dezaten, zentsuraren boterea makro enpresa hauen esku utziz, adierazpen askatasunaren aurka argi eta garbi eginez. Honela, zure bideoa bueltatuta, kontzertuko



taldearen egile eskubideak bermatze aldera, plataforma hauen lehen eginkizuna zure bideoa zentsuratzea izango da, eta ondoren, zuk frogatu beharko duzu irabazi asmorik gabeko bideo bat igotzen ari zarela.

Lana zaila izango da gaur egun ezagutzen dugun youtuberrentzat, adibidez. Edozein pelikularen edo serieren irudirik ezingo dute erabili kritikak egiterako garaian, zuzenean zentsuratu izango liratekeelako, gupidarik gabe. Edo musika berria ezingo lukete jarri hondartzan zeinen gustura dauden irakusten duten instagramek.

Hurrengo hilabeteetan ikusiko dugu zein puntutaraino aldatu den gaur egun ezagutzen dugun Internet sarea. Nik behintzat, ilun ikusten dut etorkizuna.



Luis Orduña musikaria.

"Haize Berriak bandaren etapa bat ixten da, berria hasteko"

LUIS ORDUÑA MUSIKARIA

Haize Berriak bandako zuzendaria izan da Luis Orduña 14 urtez eta orain banda utzi berri du. Musikari bezala sartu zen eta zuzendari bihurtu zen Sakanako bandan

Erkuden Ruiz Barroso ALTSASU
Sakanako musika banda zuzentzea hartu duen erabaki profesional handiena izan dela esan du Luis Orduña musikariak. Bide berri bat ireki zion. Tuba jotzetik banda zuzentzera pasatu zen, eta horrek beste hainbat bandetako zuzendaria izatera eraman zuen. Hamalau urte ondoren Haize Berriak bandako zuzendaritza utzi du.

Zergatik?

Fase oso bat izan da. Zaila da uztea, oso zaila. Lan bat baino

gehiago da niretako. Gainera, Altsasun bizi naiz. Bandarekiko dudak harremana urrunetik dator eta elkarrekin hazi gara. Erabaki oso zaila izan da baina uneren baten iritsi behar zen. Alde batetik edo bestetik. Edo

**"BANDAREKIN
BATERA GARATU NAIZ
NI MUSIKARI BEZALA.
MUSIKARI BEZALA
HASI NINTZEN"**

botatzen minduten beste bati bidea emateko edo joaten nintzen. Azkenean erabaki nuen uzteko momentua zela eta biendako positiboa izango zela.

Asko pentsatu duzu?

Bai. Erabakia hartu nuenean eta komunikatu nuenean hainbat pertsonen esan zidaten gertatuko zela bazekitela. Pistak eman nituela. Zerbati esan omen nuen duela urte bat zerbait... Ni ez naiz gogoratzen. Baina posible da hau aldatu behar zela esan izana. Pena ematen du harremanagatik.

Nola hasi zinen?

Oso bitxia eta arduragabea izan zen. Nik aurretik ez nuen zuzentzen. Ni jotzera etorri nintzen Juanjo Torres nire lehenengo musika irakaslea izan zelako. Hainbatetan jo nuen bandarekin. Aldaketaren garaia iritsi zenean, ni dagoeneko musikari profesionala nintzen eta Gasteizko bandan plaza lortu nuen. Proposatu zidaten beste hainbat pertsonekin batera eta bandak erabaki zuen ni izatea. Hiru hilabeterako izan zitekeena, hamalau urte izan dira. Banda asko handitu da alde guztietatik. Baita ni ere. Batuta erosi behar izan nuen ere, eta urte hauetan zuzendari karrera ikasi dut. Eta lan asko ateratzen zait.

Elkarrekin hazi zarete, beraz. Nolako izan da garapen hori?

Asko aldatugara. Hasi ginenekoak eta oraingoak ez du zerikusirik. Musika aldetik nabaria da garapena. Urte hauetan erronka garrantzitsuak izan ditugu eta horretaz oso kontziente gara. Presentzia handitzen joan gara eta publikoa ere handitu da. Iortia ere handituz joan da. Beraz, elkarkidetzaren ere handitu da.

Zein da zuzendariaren papera?

Batutak ez du musikarik egiten. Musika egiten dutenak besteak dira. Ez zait konparazioa asko gustatzen, baina jende guztiak ulertzen du kirolarekin alderatzen dugunean. Futbol entrenatzaileak ez dira zelaira ateratzen, gorbatarekin joaten dira askotan, baina aurreko lan guztia egiten dute. Futboleko bezala zuzendaritza-batzorde bat dago eta bertan programazioa egiten da, eta erronkak eta objektiboak zehazten dira. Orduan, gauza horiek erabakita, zuzendariak musikariei esaten die. Haiek dira entsegetara etorri behar direnak, bere denbora librean eman behar dutenak, dirua kostatzen zaiena. Hori goraiatzea gustatzen zait. Gauza asko daude egiteko eta jende hau astean bitan, ezorduetan, entsegetara joatea baloratzea da. Kritika bat dut: Sakanako banda dela azaltzea ez dugula lortu. Altsasuko banda bezala ikusten da oraindik.

**"BANDA OSATZEN
DUTEN PERTSONEKIN
ETA PUBLIKOAREN
ERANTZUNAREKIN
GELDITZEN NAIZ"**

Zer ezaugarri izan behar ditu bandako zuzendari batek?

Pazientzia izan behar du. Eta gero pazientzia gehiago. Izan behar da dinamizatzaile, motibatzaile, psikologo, politiko, ekonomilari, abokatu... Hamalau urte hauetan gertatu zaidan guztia kontatzen badut... Jendea motibatu behar duzu ere. Izan ere, maila desberdineko jendea dagoelako. Hala ere, banda honen bereizgarri nagusia da: adin guztietako eta maila guztietako jendea dago.

Kontzertuetan zer egiten duzu?

Ia ez du ezer egiten. Horrela da. Aurreko lana da gehien bat. Kontzertuan dena polita jartzea da gauza. Zuzendariak kontrolatu behar du dena ongi egotea. Gauzak oso ongi egin badituzu aurretik, erraza da kontrolatzea. Beste alde bat dago ere, nire kasuan publikoari gauzak azaltzea gustatzen zait. Gure kontzertuak haratago joaten direlako. Ez zait entretenimendu soil bat izatea gustatzen. Ikusten dudalako publikoak gauza gehiago eskatzen dituela. Eta horrekin oso pozik gelditu naiz. Publiko ona sortu dugu, kultura handiarekin eta oso kritikoa.

Nola egin duzue?

Banda honetan ez zaigu kostatzen edozein motatako erokeriak egitea. Gustatu hala ez publikoak ulertzen du hurrengo kontzertua ezberdina izango dela. Zinean bezala. Zinera joaten zarenean zerbait desberdina ikustera joaten zara. Behin batean musikariak bizirik dauden hildakoaz egin zutela. Horrelakoek funtzionatzen dute publikoari irakatsi diogulako. Ez bazara pasodobleetatik eta zarzueletatik urruntzen publikoak aspertzen da.

Eta nola hartzen zuten musikariek?

Orokorrean ongi hartzen zuten. Beti bezala jendea badago gehiago kostatzen zaion. Baina urte hauetan interpretatu dute, dantza egin dute eta azken kontzertuan Hodei magoarekin egin genuena txantxa guztien erdiguenea izan ziren musikariak. Harreman ona dagoela ikusten da. Bestela ez zuen funtzionatuko. Entseguak amaituta hitz egiten gelditzen dira... eta hori zerbait oso ona da. Ez direlako behartuta etortzen.

Zer da gehien gustatu zaizuna?

Pertsona horiekin lan egitea. Eta publikoaren erantzuna oso ona izan da ere.



Intxostiapuntako berriemaileak edo antenak ikastetxeetan.

"Intxostiapuntari bizitza ematen diogu"

Sara Martis Sakana LHko institutuko ikaslea da, Izarne Rodriguez Altsasu BHlko ikaslea, Yera Garcia Korazonistaseko ikaslea eta Izaskun Conde eta Ainhoa Agirre Iñigo Aritza ikastolako ikasleak. Intxostiapunta gazte guneko berriemaileak ere badira

E. Carreño - E. Ruiz ALTSASU

1 Asteazkenetan Intxostiapuntan biltzen zarete. Zertarako?

Hilabetean egin behar diren ekin-tzak antolatzeko eta koordinatzeko. Ondoren, informazioa ikastetxeetara bidaltzen dugu. Ikastetxeetan ere proposamenak izan baditugu ekartzen ditugu. Egun batean joan ginen gelaz gela ikaskideek ea zer

egitea nahi duten galdetuz eta proposamenak egin zezaten.

2 Zergatik uste duzue garrantzitsua dela leku bat izatea? Aspaldidanik erabiltzen duzue?

Aspaldidanik erabiltzen dugu. Gazte txokoa egoteko leku bat da. Jolastu daiteke ere eta leku hori izatea baloratzen dugu. Gainera, hotza eta euria egiten duenean

egoteko leku bat da ere. Hortaz, bizia ematen diogu gazte txokoa-ri. Jarduera asko antolatzen dituzte eta gauzak egiteko tokia dago.

3 Zuek harro sentitzen zarete egiten duzuen lanarekin?

Bai. Hala ere, lagunek eta ikas-kide gehienek ez dakite etortzen garela.

4 Nola jakin zenuten parte hartze plangintza egongo zela?

Irakasleak, orientatzaileak edota tutoreak esan zigun ea nahi genuen parte hartu nahi genuen.

5 Zer dira berriemaileak edo antenak?

Gaztetxokoaren informazioa ikastetxeetara eramaten dugu eta ikastetxean zabaltzen dugu. Horrela ikasleak parte hartzera animatzen ditugu. Gero ikasleen zalantzak ere gaztetxokora ekartzen ditugu.

6 Nondik ateratzen duzue denbora gero ikastetxeetan ikasleekin egoteko?

Ikastolara 08:00etan sartzen gara eta klaseak 08:30ean hasten direnez, tartea aprobeztatzen dugu. Atsedendietan eta klase hasiera tartea bat eskatzen dugu ere. Gelaz gela joateko tartea bat dugu.

6 Gainera, postontziak jarri zenuzuten ere, ez?

Ikastolan gehien bat gelaz gela jaso genituen proposamenak. Paper batzuk banatu genituen bakoitzak proposamen bat idazteko.

7 Nola izan da aurtengo plangintza egiteko proposamenak?

Ikastolan joan ginen gelaz gela proposamenak eskatzeko eta kutxa ez genuen jarri ikastolan banatu genituen paper batzuk bakoitzak proposamen bat idazteko eta gero proposamen horiek hartu eta gazte txokora ekarri genituen. Eta kutxa ez genuen asko erabili. Institutuan kafetegi-
gian kutxa jarri genuen eta gelaz gela joan ginen ere proposamenak hartzen.

8 Erantzunak izan dituzue?

Bai. Eta oso onak gainera. LHn eta Korazonistetan ez genituen izan.

9 Zein dira proposamen horietako batzuk?

Paintball, salting, karsetara, hondartzara... Beste batzuek esaten zuten jacuzzi bat jartzeko baina hori ezinezkoa da. Eta gero ere irteerak egin Port Aventura-ra eta horrelako gauzak. Irteera asko proposatzen dira. Beti hemen egoteaz nekatzen gara.

10 Proposatu diren horietako batzuk egingarriak dira, ez?

Bai. Gainera, plangintza ez dago itxita.

11 Noiz arte izango zarete berriemaile?

Maiatza-ekaina. Ikasturtea. Gero laugarren mailakoren batek hartu beharko du.

Udaberriko loreekin
batera berritu zure
enpresaren irudia



DISEINU GRAFIKOA
WEB DISEINUA
KOMUNIKAZIOA

